



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 12a

36. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Foru Legea, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (24. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (25. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Pirinioetarako garapen plan berri bat taxu dezan 2010-2012 urteetarako. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat taxutu eta abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Larrialdietarako Landa Zerbitzuko langileen eskabideak onar ditzan eta ezinbesteko dituzten tresnak eman diezazkien. Osoko Bilkurak bazter utzia (36. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzeari buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Legea,  
barne merkatuko zerbitzuei buruzko  
2006/123/EE Zuzentaraura  
egokitzeko xedez zenbait  
foru lege aldatzen dituen**

**ZIOEN AZALPENA**

Europar Batasuna eratzeke itunek bermatzen dute salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio librea barne mugarik gabeko eremu batean, barne merkatuan alegia.

Lisboako estrategiaren barruan, 2006ko abenduaren 12an Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Zuzentaraura onetsi zen, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoa (376. EBAO L, 2006ko abenduaren 27koa). Aurrerantzean Zerbitzuen Zuzentaraura deituko diogu.

Zuzentaraur horren aplikazioa nahitaezkoa da, Batasuneko zuzenbide eratorria den aldetik, eta aukera paregabea ere bada bere maila guztietan Batasuneko ekonomiarako garrantzi handikoa den sektore horretan aldaketa sakona egiteko, Europan zerbitzuen sektorearen ahalmen guztia desblokeatzeko funtsezko tresna baita.

Zerbitzuen Zuzentaraurak helburu hau du: zerbitzuen egiazko merkatu bakarra lortzea, Batasuneko kide diren estatuen arteko jarduerak egun

mugatzen dituzten oztopoak kenduz, bai lege aldetikoak bai administratiboak. Funtsean, zerbitzuen barne merkatuak hauxe dakar: Batasuneko kide den estatu bateko herritar eta enpresek kide den beste estatu baten lurraldean ezartzeko eta zerbitzuak emateko askatasuna izatea, horiek ematen diren estatuan ezartzeko beharrik gabe. Arau hori zerbitzu jarduera ia guztiei aplikatu ahal zaie.

Horrekin batera, Zerbitzuen Zuzentaraurak beste xede garrantzitsu batzuk ditu, besteak beste: administrazio lanak erraztea, prozedurak eta izapideak bide elektronikotik egitea ezarri eta horiek betetzeko "leihatila bakarrak" sortzea bultzatuz; kontsumitzaileen eskubideak sendotzea, zerbitzuen erabiltzaile diren aldetik, eta zerbitzu horien kalitatea bermatzea; eta Batasuneko kide diren estatuen arteko lankidetzaren administratibo eraginkorrari eustea, bai nazio mailan bai erregio edo toki mailan.

Estatuak ekin dio zuzentaraura Espainiako antolamendu juridikoan sartzeko prozesuari, eta horretarako oinarrizko izaera duen lege bat eman du, zerbitzuen jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzkoa; legean bilduta daude Zerbitzuen Zuzentarauren printzipio orokorrak, eta arauen egokitzapen prozesua autonomia erkidegoetan gauzatzeko irizpide komunak finkatzen dira bertan. Estatuako Administrazioak lege sektorial batekin burutu du zuzentarauren transposizio prozesua, haren bitartez Zerbitzuen Zuzentarauren xedapenek ukitzen dituzten estatuko lege batzuk aldatzeko.

Aipatutako arauak ezartzen dituzten irizpide orokorrak, orokorrean azaldutakoak, proposatutako lau xedetan aplikatzen dira. Lehenengo eta behin, alde zuzeneko baimen prozesuak ezabatzea eta, beharrezkoa denean, haien orde ondo-rengo jakinarazpena edo agintari eskudunek jarraipena egiteko adierazpenak erabiltzea, zeine-

tan zerbitzu-emaileak bere gain hartzen baitu bere jarduera modu egokian garatzeko behar diren baldintzak betetzeko erantzukizuna. Zerbitzuak libreki emateko zenbait baldintza bete beharra izanen dute soilik osasun publikoa, ingurumenaren babesa, ordena publikoa edo segurtasun publikoa direla-eta behar bezala justifikaturik dasudenean; betiere, baldintza proportzionatuak izanen dira eta ez dute bereizkeriarik eraginen nazionalitatea edo sozietatearen helbidea dela medio.

Bigarrenik, administrazio lanak errazteko pausoak ematea, beharrezkoak ez diren izapide guztiak kenduz eta herritarrentzat traba gutxien ekartzen dituzten alternatibek alde eginez; esate baterako, bide telematikoak baliatuz eta urrutitik tramitatzeko aukerak emanez. Horretarako, leihatila bakarra sortzea aurreikusten da, bertan bizkor egin ahal izateko zerbitzuen jarduera Europako edozein herrialdeetan betetzeak ekartzen dituen izapide administratibo guztiak -europarrak, nazionalak, autonomikoak zein tokikoak-.

Hirugarrenik, kontsumitzaileen eskubideak eta bermeak sendotzen dira, zerbitzu-emaileari eta haren zerbitzuei buruzko informazioaren arloan betebeharrak handiagoak ezartzen direlako. Horrez gain, erreklamazioak aurkezten direnetik hilabete epean erantzuteko beharkizuna ere ezartzen da.

Azkenik, Espainiako agintarien eta gainerako estatu kideetako arteko lankidetzarako lanabesak indartzen dira. Europar Batasuneko herrialde guztietako administrazioek elkarrekin lankidetzan aritu behar dute, euren lurraldean ezarriko dauden zerbitzu-emaileen inguruko informazioan, kontrolean, ikuskapenean eta ikerketan, bai eta Europako Batzordearekin ere.

Foru lege honen helburua da, aipatutako arau multzoak ezarritakoaren ildotik, Zerbitzuen Zuzentzarua Nafarroako antolamendu juridikoan sartzeko prozesua burutzea, foru legedia sei foru lege aldatuz egokitzeko.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen egokitzapena beste foru lege baten bidez egin da –hartan biltzen dira Nafarroako Gobernuak igorritako proiektuan foru lege horri egindako aldaketak–, kontuan hartu behar baita hura onesteko gehiengo osoa behar dela Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 20.2 eta 18.2 artikuluei jarraikiz. Hortaz, proiektu hartatik honako foru lege hau eta Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzea atera dira, Nafarroako Parlamentuko Erregulamenduko 151.3 artikuluan xedatuari jarraikiz.

Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauaren transposizioa egitean, autonomia erkidegoetako arauak egokitu beharra gertatzen da, zuzentarauak horien edukian eragina duen heinean.

Aldatu beharreko arauen artean nabarmentzekoa da, merkataritzak Nafarroako Foru Komunitatearen egitura ekonomikoan duen garrantziarengatik, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea.

Zuzentarauaren ondorioz egin beharreko aldaketek norabide bikoitza dute, funtsean: merkataritza gune handiak ezartzeko irizpide ekonomikoak kentzea eta izapidetze administratiboa erraztea.

Horrenbestez, lege aldaketa honek bilatzen du azaldutako xedeak betetzea, azaldutako edukien bitartez.

Lehenbizi, printzipio zuzentzaileak eta sustatzaileen betebeharrak aldatzen dira, eta kontzeptu berrien arabera gaurkotzen dira (zerbitzuaren kalitatea), merkataritza-mota ekonomiko baten lehenespene gisa interpreta daitezkeen erreferentziak kenduta.

Bigarrenik, erregulazio zehatz eta berria egiten da merkataritza-establezimenduari eta haien ezarpenari buruz, ingurumen- nahiz lurralde-antolamenduko irizpideetan oinarritua. Honako alderdi hauek, zehatz esanda:

a) Merkataritza-establezimenduaren definizioa. Errazagoa eta objektiboagoa izan dadin nahi da, segurtasun ezeko eta iruzurreko egoerak saihestuz, nola izan baitira poligonoak edo txikizkako eta handizkako jarduerak batera egotea.

b) Merkataritza-establezimenduak jartzeko printzipioak. Europako zuzenbideari egokitutako printzipioak.

c) Merkataritza-erabileraren lurralde antolaketari eta hirigintza antolaketari buruzko araupetzea.

Beharrezkotzat jotzen da bai lurralde-antolamenduko tresnek (lurraldearen antolamenduko planak) bai udal planeamenduak merkataritza-erabilerak arautzea, ezartzen diren irizpideen arabera, bereziki merkataritza-establezimenduaren baimena behar duten establezimenduetarako merkataritza-erabilerak.

d) Ezarpena baimentzeko prozedura erraz eta azkarra (gutxieneko izapideak eta epe laburrak), udalez gaindiko plan sektorial baten bitartez.

e) Merkataritza-establezimenduen ezarpena baimentzeko irizpide objektiboak, interes orokorra ardatz harturik.

Hirugarrenik, merkataritzarako ordutegiak arautzen dira, Estatuko oinarritzko legediaren arabera.

Laugarrenik, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea sortzen da. Haren xedea aholkua emateko eginkizunetan eta sustapen lanetan jardutea da, merkataritza dinamizatzeko eta hobetzeko.

Bosgarrenik, merkataritza laguntzeko neurriak aldatzen dira, eraginkortasun handiagoa eta emaitza hobekia lortzeko. Horien artean, merkataritza-erakarpenerako planak daude.

Seigarrenik, merkataritza-establezimenduen errolda aurreikusten da, merkataritza garatzeko funtsezko tresna eta tresna erabilgarri gisa, Europako arauen aurkako guztia deuseztatuz. .

Zazpi artikuluren bidez, foru lege honek gai hauetako erregulazioa aldatzen du: lanbide elkar-goak, jokia, osasuna, turismoa eta merkataritza. Beraz, foru lege hauek aldatuko dira, hurrenez hurren: apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzkoa; abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea, Jokoari buruzkoa; azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea, Osasunari buruzkoa; otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legea, Turismoari buruzkoa; uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legea, Nafarroako Egoitza Finkorik gabeko Merkataritzari buruzkoa, eta uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea, Nafarroan Merkataritza arautzen duena.

Amaitzeko, foru lege honek, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen ez ezik, xedapen indargabetzaile bat ere badu, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen zenbait artikulua indarririk gabe uzten dituena. Merkataritzaren arloan egindako aldaketaren ondorio zuzena da, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen lau artikulua ere indarririk gabe uztea.

#### **1. artikulua.** Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko legeria egokitzea, batetik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne merkaturako zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EE Zuzentaraura, eta bestetik zerbitzu jarduerak libreki jarri eta ematea arautzen duen azaroaren 23ko 17/2009 Legea.

**2. artikulua.** Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 3. artikuluko 2. idatz-zatiko h) letra aldatu eta honela geldituko da:

“h) Lan profesionalak sinatu, indarra duen araudiari jarraikiz bidezkoak diren kasuetan eta bidezkoa den edukiarekin”.

**3. artikulua.** Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 39. artikuluko h) letraren testua hauxe izanen da:

“h) Jakinarazpenik edo baimenik gabe Katalogoko jokoak erabiltzea salmenta sustapenetan”.

**4. artikulua.** Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 23. artikuluko b) letra aldatu da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“b) Nafarroako Foru Komunitatean dauden elikagaien sektoreko establezimenduen jardueri buruzko jakinarazpenetarako edo establezimendu horiek osasun baimena izateko baldintzak zehaztea.

Erregelamendu bidez arautuko dira Nafarroako Elikagaien arloko Jardueren Osasun Zentsuak –bertan inskribatuko dira elikagaien arloko jardueren jakinarazpenak–, eta Nafarroako Elikagaien arloko Jardueren Osasun Erregistroak jarduteko arauak; erregistro horretan inskribatuko dira, jarduerari ekin baino lehen, jarduteko osasun baimena behar duten eta Foru Komunitateko lurraldean establezimenduren bat duten elikagaien arloko enpresak”.

**5. artikulua.** Turismoari buruzko otsailaren 14ko 7/2003 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 13. artikuluko testua honela geldituko da:

“13. artikulua. Jarduera turistikoaren araubide juridikoa.

1. Jarduera turistikoak libreki dira. Muga bakarrik aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduen ondoriozkoak dira.

2. Aurreko idatz-zatia gorabehera, enpresa eta establezimendu turistikoek, jarduera hasi baino lehen, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribaturik egon beharko dute eta bestelako erakundeek zeinek bere eskumenen arabera eskatu ahal dizkiten lizentzia edo baimenak eduki.

3. Halere, Nafarroan zerbitzu turistikoak establezimendurik gabe emateko, Europar Batasuneko kide diren estatuetak nazionalitatea izan, eta zeinek bere herrialdean foru lege honetan aipatzen diren zerbitzu turistikoak emateko gaikuntza dutenek, ez dute Nafarroako Turismo Erregistroan izena eman beharrik izanen, horrek ezertan galazari gabe turismoaren arloko eskumena duen departamentuaren gainbegiratze ahalmenak.

4. Jarduera klandestinatza hartuko da Nafarroako Turismo Erregistroan alde aurretik inskribatu behar diren zerbitzu turistikoak foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitako erantzukizuneko aitortpena aurkezteko beharkizuna bete gabe egiaz ematea edo, edozein bitarteko erabiliz, zerbitzu horien publizitatea egitea.

5. Jarduera turistikoek ematen dituzten zerbitzuen prezioak libreak dira. Prezioen tarifak betiere erabiltzaileen eskura izanen dira eta establezimendu turistikoan ikusgai.

6. Establezimendu turistiko guztiak publikoak dira; edonor sartu ahal da haietan. Muga bakarrak izanen dira haien izaera eta tamaina, indarra duten legeak eta, kasua bada, zerbitzu eta instalazioak erabiltzeko establezimenduko barne arauak.

Establezimendu turistiko publikoetan sartzeko askatasuna ezin izanen da mugatu jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo pertsonaren edo giza taldearen beste edozein gorabehera edo izaera kontuan hartzen duen bereizkeriazko inolako irizpideren arabera.”

Bi. 14. artikulua honela geldituko da:

“14. artikulua. Nafarroako Turismo Erregistroa.

1. Nafarroako Turismo Erregistroa erregistro publiko administratibo bat da. Haren xedea da inskribatzea establezimendu turistikoak, enpresa turistikoak, enpresaz bestelako entitate turistikoak eta bere jarduera turistikoagatik erregelamendu bidez zehazten den beste edozein establezimendu edo pertsona.

2. Inskripzioa nahitaezkoa izanen da enpresa turistikoentzat eta haien establezimenduentzat eta araturik dauden jarduera turistikoentzat. Gainerako kasuetan inskripzioa aukerakoa izanen da.

Beti ere, Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzea nahitaezko baldintza izanen da turismoaren alorreko dirulaguntzak kobratu ahal izateko.

3. Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko, interesdunek erantzukizuneko aitortpen bat aurkeztuko dute, bertan adieraziz zerbitzuari edo establezimenduari eta haren sailkapenari dagokien indarra duen araudian ezarritako baldintzak

betetzen dituztela, eta jardueraren indarraldi osoan beteko dituztela hitz ematen dutela; kasuan kasuko ziurtagiriak ere eskura izanen dituzte.

Erregelamendu bidez zehaztuko da erantzukizuneko aitortpenarekin batera aurkeztu beharko den dokumentazio osagarria.

4. Aurreko idatz-zatian aipatzen den erantzukizuneko aitortpena aurkeztea aski izanen da Nafarroako Turismo Erregistroan inskribatzeko beharkizuna betetzat emateko.

5. Turismoko eskumena duen departamentuak jarduera edo establezimendua inskribatuko du Nafarroako Turismo Erregistroan, erantzukizuneko aitortpenaren edukiaren eta, kasua denean, dokumentazio osagarriaren arabera; halaber, jarduera sailkatuko du, hala aurreikusita dagonenean. Horrez gain, bere kontrol ahalmenaz baliatu ahal izanen da eta kautelazko nahiz zehapeneko neurriak hartuko ditu, beharrezkoa denean.

6. Erregistroan sailkatu eta inskribatzeko kontuan hartutako baldintzak eta betebeharrak nabarmen aldatuz gero, aldaketa hori ere bertan adierazi beharko da, aurreko idatz-zatietan aurreikusitako prozedurarekin bat. Betiere, “nabarmen”tzat hartuko dira establezimendu turistikoetako postuen kopurua aldatzea, zerbitzuak gehitzea eta erabilera turistikoa eta titulartasuna aldatzea.

7. Inskripzioaren xede izan den jarduera elkarren segidan bi urtetik goiti utziz gero inskripzioa ofizioz indargabetuko da.

8. Erregelamendu bidez ezarriko dira Nafarroako Turismo Erregistroaren antolaketa, prozedura eta funtzionamenduko arauak.”

Hiru. 26. artikulua honela geldituko da:

“26. artikulua. Bidaia-agentziak.

1. Bidaia-agentziak dira modu profesional eta komertzialean zerbitzu turistikoaren bitartekotzan eta antolamenduan diharduten enpresak.

2. Bidaia-agentziaren legezko izaera eta izendapen hori aurreko idatz-zatian aipatzen diren enpresek baizik ez dute izanen. Legez bidaia-agentzia direnek bakarrik erabili ahalko dituzte “bidaia” eta “bidaiak” hitzak beren jardueren izenburu edo azpi-izenburu oso gisa edo haien zati gisa.

3. Bidaia-agentziak, beren jardueren arabera, hiru motatakoak izan daitezke:

a) Handizkakoak: Txikikazko agentziei eskaintzeko xedez era guztietako zerbitzu eta zerbitzuz sorta turistikoak proiektatu, prestatu eta antolatzen

dituztenak. Beren produktuak ezin dizkiote zuzenean eskaini erabiltzaileari edo turistari.

b) Txikizkakoak: handizkako agentzien produktua merkaturatu eta zuzenean erabiltzaile edo kontsumitzaileari saltzen dizkietenak edo erabiltzaileentzat zuzenean zerbitzu eta zerbitzu-sorta turistikoak proiektatu, prestatu, antolatu eta/edo saltzen dituztenak. Beren produktuak ezin dizkiote eskaini beste agentziei.

c) Handizkako-txikizkakoak: Aurreko bi taldeen jarduerak egin ditzaketenak.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira bidaia-agentziei eskatu beharreko baldintzak eta beharkizunak:

Lau. 53. artikuluko o) letra aldatu da eta p) eta q) letra berriak erantsi dira. Testu hau dute:

“o) Nafarroako Turismo Erregistroan alde zuzenetik inskribatu behar diren zerbitzu turistikoak egiaz ematea edo, edozein bitarteko erabiliz, haien publizitatea egitea, foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitako erantzukizuneko aitortpena aurkezteko beharkizuna beteta baina turismoaren arloko arauetan eskatzen diren agiriak izan gabe.

p) Foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitako erantzukizuneko aitortpenean adierazitako datuak okerrak izatea.

q) Oro har, turismoari buruzko araudian ezarritako baldintza, betebeharrak eta debekuak ez betezea, baldin eta larriak edo oso larriak ez badira.”

Bost. 54. artikuluko 1. idatz-zatiaren a) eta b) letrak aldatu dira. Hona testu berria:

“a) Zerbitzu turistiko bat modu klandestinoan egin edo ematea, foru lege honen 13.4 artikuluan zehaztuta dagoen bezala.

b) Jarduera turistiko bat sailkatu edo bertan jardun ahal izateko bete beharreko inskripzio edo gaikuntza beharkizunak edo baldintzak ez betezea edo aldatzea.”

Sei. 55. artikuluko 1. idatz-zatiaren c) letra aldatu da, eta hauxe izanen da testu berria:

“c) Turismo establezimendu bat inskribatu edo jarduera turistikoan irekitzeko nahitaezko gaikuntza inskribatu edo emateko funtsezko kontuak doloz aldatzea.”

Zazpi. 57. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatien testu berria hauxe izanen da:

“1. Foru lege honetan eta turismoaren alorreko beste xedapenetan ezarritakoaren kontrako arau-hauste administratiboek zehapen hauek sortuko dituzte.

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Jarduera turistikoak etetea edo establezimendua aldi baterako ixtea.

d) Establezimendua behin betikoz ixtea.

2. Ez da zehapena izanen establezimenduak edo instalazioak Nafarroako Turismo Erregistroan, indarra duen araudiarekin bat, inskribatuta ez egoteagatik ixtea edo jarduna etetea inskripzioa egin arte, hala erabakitzen bada. Turismoaren alorrean eskudun den departamentuko titularrak erabakiko du ixtea edo etetea, interesatuari entzun ondoren. Neurri hori hartuko da zehapen espedientea irekitzeko aukera deusetan galarazi gabe.”

Zortzi. 58. artikuluko 5. idatz-zatia aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“5. Arau-hauste oso larrietan berreroriz gero, establezimendua behin betikoz itxi ahal izanen da, zehapen osagarri edo nagusi gisa.”

Bederatzi. 61. artikuluko b) letrak testu hau izanen du:

“b) Nafarroako Gobernua, establezimendua behin betikoz ixtea ekartzen duten arau-hauste oso larriak direnean.”

**6. artikulua.** Nafarroako Egoitza Finkorik Gabeko Merkataritza buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 4. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“4. artikulua.

1. Udalek, zeinek bere udalerrian, egoitza finkorik gabeko merkataritza arautu ahal izanen dute, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz betiere.

2. Udal arau horiek zehaztuko dute zein diren baimendutako tokiak, maiztasuna, ordutegia eta salgaiak, eta ezarriko dituzte, halaber, egoitza finkorik gabeko merkataritza moten ezaugarriak, foru lege honen 3. artikuluan aipatzen diren hiru motak bereiziz.

3. 3. artikulua a) letran aurreikusitako azokak, aldizkakotasun zehaztua dutenak, astean behin baizik ez dira eginen.

4. Baimenak denbora mugaturako emanen dira, egindako inbertsioa eta inbertitutako kapitalen bidezko ordainsariak kalkulatu ondoren. Prozedurak bermatuko du prozesua gardentasunez eta inpartzialtasunez hasi, garatu eta amaitzen dela eta, zehazki, haren publizitate egokia egiten dela.

5. Udalak identifikaziorako txartel bat emanen dio bere udalerrian egoitza finkorik gabeko merkataritzan aritzeko baimena jasotzen duenari; txartelak baimenaren funtsezko datuak agertuko ditu eta bezeroen eskura eta haiek ikusteko moduan jarriko da. Txartel horretan adierazita egonen da, orobat, kontsumitzaileek zein tokitan aurkeztu ahal izanen dituzten erreklamazioak. Helbide hori salmentaren fakturan edo ziurtagirian ere agertu beharko da.

6. Egoitza finkorik gabeko merkataritzan aritzeko baimena duen titular bakoitzak erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko du, jardueraren arriskuak estaliko dituena.”

**7. artikulua.** Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 2. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

2. artikulua. Printzipio gidariak.

Foru lege honek hurrengo oinarriko printzipioak izanen ditu, eta hurrengoak bultzatuko:

a) Nafarroako udaletako hiriguneetan txikizkako merkataritzaren sistemari eustea.

b) Merkataritzaren eskaintzan eta aniztasunean berdintasun eta aniztasun baldintzak betetzea.

c) Merkataritza-jardueren hazkundea harmonizatsua eta orekatua izatea, hiri ingurunean garapen iraunkorra lortzea helburu.

d) Zerbitzuen kalitatean maila handiari eustea.

e) Agente sozialen –bereziki, kontsumitzaileen– parte-hartzea merkataritzaren garapenean.”

Bj. 5. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“5. artikulua. Txikizkako merkataritzaren jarduera eta produkzioa nahiz handizkako banaketaren jarduera batera izatea.

1. Foru lege honen eraginetarako, handizkako merkataritza-jardueratzat ulertzen da hartzaile gisa beste merkatarari edo enpresari batzuk dituen, amaierako kontsumitzaileez bestekoak direnak.

2. Txikizkako jarduerak eta handizkako jarduerak establezimendu berean batera izateak ondorio gisa izanen du establezimendu horretako azalera osoa foru lege honetan ezarritakoei lotuta egotea, txikizkako jarduerarako erabiltzen den azalera establezimenduaren azalera osoaren hirutik bat baino gehiago denean.”

Hiru. 10. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“10. artikulua. Merkataritzako operadorea.

Operadoretzat hartuko da merkataritza-establezimenduaren baimena behar duen merkataritza-establezimendu baten titularra den pertsona fisikoa nahiz juridikoa.”

Lau. 12. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“12. artikulua. Sustatzaileen eta operadoreen betebeharrak.

Sustatzaileek eta operadoreek hurrengo betebeharrak dituzte:

a) Saihestu egin beharko dute edozein motatako lehia desleiala edo publizitate engainagarria.

b) Saihestu egin beharko dute monopolio gisa aritzea edo merkaturia mendean balute bezala aritzea.

c) Merkataritza-instalazioaren ezarpenak sortzen dituen hirigintza-obra guztien gastuak bere kargura egitea, ingurumenaren gaineko eraginaren zuzenketatik sortutako gastuak finantzatzea eta bere kontura zirkulazioa eta eskaerak eta baimenak adierazten dutenaren arabera sarbideak antolatzeke neurriak hartzea.”

Bost. II. titulua, Merkataritza-establezimenduak, aldatzen da. Hona izanen duen testua:

“BIGARREN TITULUA  
Merkataritza-establezimenduak

I. KAPITULUA  
Merkataritza-establezimendua:  
kontzeptua eta motak

13. artikulua. Kontzeptu orokorra.

Honakoak hartuko dira merkataritza-establezimenduetzat: merkataritza-jarduera baliatu ohi duten lokalak eta izaera finko eta iraunkorreko instalazioak nahiz eraikuntzak, alde batera utzita banaka nahiz taldekako guneeetan eginak diren eta alde batera utzita modu iraunkorrean nahiz egun edo sasoi jakinetan eginak diren.

Merkataritza-establezimendu izatetik kanpo geratzen dira bide publikoan kokatutako guniak, toki entitate eskudunen baimena dutenak txikizkako salmenta-jarduera ez-egonkorrean jarduteko.

14. artikulua. Sailkapen orokorra.

Txikizkako merkataritza-establezimenduak, oro har, banakakoak edo kolektiboak izan daitezke; kolektiboaren artean, berriz, bereizi behar dira merkataritza-guneak eta merkataritza-barrutiak.

15. artikulua. Merkataritza-establezimendu kolektiboak.

1. Merkataritza-establezimendu kolektibotzat hartuko dira, foru lege honen eraginetarako, merkataritza-eremu bereko eraikin batean edo eraikin batzuetan kokaturiko establezimenduen multzo batek osatutakoak, non hainbat gisatako merkataritza-jarduerak egiten baitira.

Bi establezimendu edo gehiago merkataritza-eremu berekotzat joko dira baldin eta inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Sarbide komuna, bide publikotik, merkataritza-eremu bateko merkatariek edo bezeroek bakarrik edo lehentasunez erabiltzen dutena.

b) Aparkaleku partekatuak edo elkarren ondoak, betez ere merkataritza-eremuko bezeroek erabiltzekoak.

c) Merkatarientzako nahiz merkataritza-eremuko bezeroentzako zerbitzu komunak;

d) Izen komuna edo irudi komuna emanen dioten bestelako elementuak egotea.

2. Betiere, merkataritza-establezimendu kolektibotzat hartuko dira merkataritza-guneak eta merkataritza-barrutiak.

3. Merkataritza-gunea da batasun baten moduan kokatutako, pentsatutako eta kudeatutako merkataritza-establezimenduen, salmenta-guneen edo zerbitzuen multzo bat da.

4. Merkataritza-barrutia merkataritza-eremu berean bildutako merkataritza-establezimenduen multzo bat da.

Orobat hartuko dira merkataritza-barrutitzat merkataritza-poligonoak edo –kontzentrazioak, hau da, banakako merkataritza-establezimenduen nahiz merkataritza-establezimendu kolektiboen multzoa, egoitza-erabilera nagusiki duten lurzoru urbanizagarrietatik edo hiri lurzoruetatik kanpo daudenak eta haien artean 300 metro linealeko distantzian dauden txikizkako bi merkataritza-establezimendu edo gehiago daudenean.

Distantzia hori neurtuko da establezimenduko edozein puntutatik hasi (horren barne direla zerbitzuak eta aparkalekuak) eta establezimenduaren beste edozein puntutaraino, oinezkoentzako ibilbide ahalik eta laburrenetik joanda edo, oztopo fisiko nabarmenak daudenean, ibilgailuz eginiko ibilbidetik.

5. Honakoak ez dira merkataritza-establezimendu kolektibotzat hartuko:

a) Mugaz haraindiko eremuetako merkataritza-establezimenduak, nahiz eta merkataritza-eremu bakarrean egon.

b) Etxebizitzetarako, hoteletarako edo bulegoetarako eraikinen etxabeetan kokaturiko merkataritza-establezimenduak, baldin eta etxebizitzetarako erabilera nagusia duen hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian badaude.

## II. KAPITULUA

### Merkataritza-establezimenduak jartzea

#### 1. atala

##### Aplikatu beharreko printzipioak

16. artikulua. Merkataritza-establezimenduak jartzeko bete beharreko printzipioak.

Txikizkako merkataritza-establezimenduak jartzeko edo ezartzeko, honako printzipioak bete beharko dira:

a) Zerbitzuak ematen dituztenek libreki ezartzeko askatasuna izatea eta enpresa-askatasuna egotea merkatuko ekonomiaren esparruan.

b) Zerbitzuen jarduera batean hasteko izapideak eta zerbitzu horietaz baliatzea erraza izatea.

c) Proporzionaltasuna baimenak ematerakoan, interes orokorraren alde.

d) Merkataritza erraztea udaletako hirigunearen barruan; halaber, hiriaren berritzea eta birsortzea erraztea.

e) Egoitza-erabileren eta merkataritza-jardueren artean harmonia daukan hiri-eredua indartzea.

f) Merkataritza-jardueren hazkunde harmoniatua eta orekatua izatea, hiri ingurunean garapen iraunkorra lortzea helburu, lurraldearen gaineko ezarpenen eragina ahal den guztian gutxituz.

g) Mugikortasuna gutxitzea, azpiegitura publikoak kongestionatzen dituzten eta kutsadura atmosferikoa areagotzen duten beharrik gabeko joan-etorriak saihesteko.

h) Eskaintzaren eta operadoreen aniztasuna bermatzea, eta sektore guztietako herritar guztiei ahal diren aukera zabalenak eskaintzea, bereziki menpekotasun egoeran daudenei.

i) Aurrezkoa eta efizientzia energiaren kontsumoan, eta energia berriztagarriak bultzatzea.

#### 2. atala

##### Merkataritza-erabileraren lurralde antolaketari eta hirigintza antolaketari buruzko araupetzea

17. artikulua. Lurraldearen antolamenduko planak.

Lurraldearen antolamenduko planek lurraldean merkataritza-establezimenduak antolatzeko irizpi-deak jaso beharko dituzte beren determinazio



lotesleen artean, eta aurreko artikuluan jasotzen diren aplikazio-printzipioei lotuko zaizkie.

Ondoko hauek hartuko dira irizpide orokor gisa:

a) Saltokiak non ezarri erabakitzean, udaletako hiriguneek lehentasuna izanen dute; hori horrela izanen da baita foru lege honen ondorioz udalez gaindiko planen menpe gelditzen diren establezimenduetarako ere.

b) Dotazio osagarria eta etxebizitza-erabilerei eta merkataritza-jarduerei lotutakoa.

c) Merkataritza-jardueren lurraldeko ezarpenak daukan eragina gutxitzea, zehazki honako esparruetan: mugikortasuna, kutsadura atmosferikoa, energiaren kontsumoa eta zoruaren okupazioa.

18. artikulua. Udal plan orokorrak.

1. Udal plan orokorrek merkataritza-erabilera-aren araberakoak izan beharko dute, eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea ere bete beharko dute, bai eta foru lege honetan ezarritako printzipio eta irizpideak eta lurraldearen antolamenduko planak ere.

2. Udal planeamendu orokorrak, merkataritza-erabilera dela eta, honako determinazioak bete beharko ditu:

a) Merkataritza-erabilera generikora eta merkataritza-establezimendu handiaren erabilera berarizkora ondoen egokitzen den hiri lurzoruen eta urbanizagarrien mugaketa, foru lege honetako 16., 17. eta 19.6 artikuluetan jasotzen diren printzipioekin bat.

b) Merkataritza-erabilerako dotazio bat, etxebizitza kolektiboen eraikin bateko etxabeetan jarria, etxebizitza bakoitzeko 3 metro koadrokoa. Dotazio horretan ezin izanen da baimendu establezimendurik, baldin eta bere ezaugarriak direla-eta udalez gaindiko plan sektorial baten xede baldin bada.

c) Merkataritza antolatzeke eta hartara erakartzeko plan bat. Hiriguneetako eta dentsitate demografiko handiko etxebizitza-esparruetako merkataritza guneak edertzeko eta hirigintzaren aldetik hobetzeko neurriak edukiko ditu.

### 3. atala

#### Establezimendua baimentzea

19. artikulua. Merkataritza-establezimenduak baimentzea eta ezartzea udalez gaindiko plan sektorial baten bidez.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko, oro har, ez da baimenik beharko.

2. Operatzaileak edo sustatzaileak sustatutako udalez gaindiko plan sektorial bat izapidetzearen mende geratuko da merkataritza-establezimendu handiak jartzea, bai eta jadanik jarrita daudenak handitzea ere, baldin eta hasierako azalera 500 metro koadro baino gehiago handitzen bada, eta behin bakarrik, fou lege honetan ezarritako irizpideekin bat.

3. Txikizkako merkataritza-establezimendu handitzat hartuko dira txikizkako merkataritzan aritzen diren establezimendu individual edo kolektiboak, baldin eta produktuak saltzeko eta erakusteko duten azalera erabilgarria 2.500 metro koadro baino handiagoa bada."

4. Azalerak zenbatzerakoan, produktuak saldu eta erakusteko azalera erabilgarritzat edo zerbitzuak erakusteko azalera erabilgarritzat hartuko da produktuak erakusgarri izaten dituenak, ohiz ala noizik behinka, bai eta pertsonen pasabide diren lekuak, eta, orobat, produktuak aurkeztu, eman eta kobratzeko diren lekuak. Ez dira azalera erabilgarritzat hartuko, inola ere, bulegoak, aparkalekuak, jendeak bisita ez ditzakeen zamalanetarako eremuak eta biltegiak, eta, orokorrean, jendearen sarrera murriztuta duten leku edo instalazio guztiak.

5. Merkataritza-establezimendu handien kontzeptutik at geratzen dira udal merkatuak eta ibilgailuen nahiz erregaien, makineria industrialaren, lorezaintzako gaien eta eraikuntza nahiz saneamenduko gaien salmentakoak, bai eta mugaz harandiko eremuetakoak ere.

6. Merkataritza-establezimendu handiak egoitza-erabilera nagusiko lurzoru urbanizagarrietan edo hiri lurzoruetan soilik instalatu ahal izanen dira. Egoitza-erabilera nagusitzat hartuko da ondokoa: etxebizitza kolektibo jarraituko 250 etxebizitzako edo 600 biztanleko egoitza-eremua, hektarea bakoitzeko 40 etxebizitzako egoitza-dentsitatea duena. Salbuespen gisa, orobat jarri ahal izanen dira berreskuratutako industria-eremuetan, hiriaren edo hiri-bilbearen zati badira.

7. Artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatzen diren plan sektorialek jarduketa-eremuan indarrean diren lurraldearen antolamenduko tresnen determinazioak bete beharko dituzte, eta, betiere, sortzen den mugigarritasunari buruzko azterlan bat jasoko dute, bai eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko Planak eta Nafarroako Gobernuako departamentuek eska ditzaketanak ere.

20. artikulua. Merkataritza-establezimendu bat jartzeko baimena udalez gaindiko plan sektorial baten bidez lortzeko eskabidea.

1. Merkataritza-establezimendu bat jartzeko baimena udalez gaindiko plan sektorial baten bidez lortu nahi duten interesdunek kasuan kasuko eskabidea aurkeztu beharko dute lurraldearen antolamendu eta hirigintza arloko eskumena duen departamentuan edo, hala badagokio, instalatuko den udalerriko udalean.

2. Eskaria behar den bezala sinatuta aurkeztuko da eta, interesdunen ordezkariak dauden kasuetan edo interesdun anitz dagoenean, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

3. Eskaria bide telematikoak erabiliz aurkeztu ahal izanen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4 11/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

4. Interesdunek, eskabidean, adierazi ahal izanen dute posta elektronikoko zein helbidetan jaso nahi dituzten kasuko jakinarazpenak. Kasua bada, Administrazioak behar diren jakinarazpenak egiten ditu, apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

5. Interesdunek eskariak aurkezteko bide telematikoak aukeratzen baldin badute, eskariaren ale bat baizik ez dute aurkeztu beharko, eta behar den dokumentazioa erantsi beharko dute. Baldin eta eskaria aurkeztu izana ziurtatuko duen eskariaren kopia zigilatua lortu nahi badute, eskariaren beste kopia bat aurkeztu beharko dute, bai eta erantsitako dokumentazioaren ale bakoitzaren kopia bat ere.

6. Interesdunek, eremu euskaldunean, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuan araututakoaren arabera, eskaria gaztelaniaz, euskaraz edo elebitan aurkeztu ahal izanen dute.

7. Eskaria, erantsi beharreko dokumentu guztiak edo erantsi beharreko dokumenturen bat Europako Batasuneko hizkuntza ofizialen batean aurkeztu nahi duten interesdunek dokumentu horien gaztelaniazko itzulpena, zinpekoa izan gabe ere, aurkeztu beharko dute.

21. artikulua. Merkataritza-establezimendu bat jartzeko baimena udalez gaindiko plan sektorial baten bidez lortzeko eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko baimena udalez gaindiko plan sektorial baten bidez lortzeko eskabidean, interesdunek beren identifika-

zioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bai eta arau honetan zehaztutako dokumentazio tekniko eta administratiboa ere.

2. Honakoa izanen da eskatzailearen edo interesdunaren identifikazioari buruzko dokumentazioa.

a) Eskatzailea pertsona fisiko bat denean, NANaren kopia konpultsatua erantsi beharko da.

Eskatzailearen NANean agertzen den helbidea helbide fiskalaz beste bat denean, gainera, helbide horren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa denean, honakoak aurkeztu beharko dira:

Lehena. Entitatearen eratzeari buruzko notarioaren eskritura, bai eta eskritura hori aldatzeko geroan egiletsi diren gainerako eskriturak ere, halakorik balitz.

Aurkezten diren eskrituren kopiek kasuko erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta inskripzio hori egiaztatuta beharko da.

Eratzeari buruzko eskrituran edo haren ondorengo aldatze-eskrituretan agertzen den eskatzailearen helbidea bere helbide fiskalaz beste bat denean, gainera, helbide horren egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Bigarrena. Entitate eskatzailearen izenean agertzen denaren ordezkari-ahalordeari buruzko notario-eskritura.

Hirugarrena. Bidezkoa den kasuetan, Administrazioaren organoak edo entitate eskatzailearen eskumen asimilatuak dituen organoak emandako ziurtagiria aurkeztuko da. Ziurtagiri horretan, entitatearen kalifikazioaren berri emanen da, hain zuzen ere enpresa txikia edo ertaina den, eta haren akzioen osaeraren berri ere emanen da, eskaria aurkezten deneko egunari dagokiona.

3. Honakoa izanen da exijitzekoa den dokumentazio tekniko eta administratiboa:

a) Oroitidazkia eta oinarriko proiektua, teknikari eskudunak sinatua, arau hauen arabera eta Eraikuntzaren Kode Teknikoa onesten duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren arabera exijitzekoa zaion gutxieneko edukiarekin.

b) Eraikina kokatu nahi den lurralde-eremuari dagokion udalaren txostena, egin nahi den hirigintza-planeamenduaren erabilerekin eta proiektuarekin ados dagoela adierazten duena.

c) Eraikina edo eraikinak ezarri nahi diren lur-sailak horretarako erabil daitezkeela behar adina ziurtatuko duen dokumentazioa.

d) Teknikari eskudunak sinaturiko azterlana, proiektuaren eraginak sorrarazitako mugikortasuna eta mugikortasun horrek ekarritako CO<sub>2</sub>ren emisio atmosferikoak ebaluatuko dituena.

Azterlanak osotasunez baloratu beharko du proiektuak sorrarazitako mugikortasuna eta, gainera, mugikortasunaren ondoriozko CO<sub>2</sub>ren emisio atmosferikoei buruzko gutxi gorabeherako kalkulu bat ere jaso beharko du, araz baimendutako metodologia edo sistemak erabiliz. Emisio atmosferikoei buruzko kalkuluak, nolahi ere, honako informazioa azalduko du: joan-etorriaren batez besteko distantzia; aurreikusten den ibilgailu-kopurua; ibilgailu motak/km banaketa; kongestionatutako bideetan –nagusietan nahiz bigarren mailakotan– egonen diren joan-etorrien ehunekoaren kalkulua; ibilgailu motaren arabera batez besteko abiadura.

e) Nafarroako Gobernuak energiaren arloko departamentu eskudunak emandako ziurtagiria, egiaztatzeko proiektua energia aurrezteko gomendagarrienak diren irizpideekin diseinatu dela.

f) Ingurumen eraginaren azterlana eta, kasu bada, ingurumen eraginari buruzko adierazpena, betiere Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean eta hura garatzeko arauetan erregulatutakoari jarraituz.

g) Eskatzaileak emandako ziurtagiria, zeinean zehaztuko baita, behin establezimendua ezarri ondoren, establezimenduaren eragin-eremuan salmentarako azalera zenbateko ehuneko izanen duen.

h) Sortzen den tasari dagokion zenbatekoa ordaindu izanari buruzko ziurtagiria.

4. Interesdunak ez ditu aurkeztu beharko jada merkataritzaren arloko eskumenak dituen Nafarroako Gobernu departamentuaren eskuetan dauden dokumentuak, baina, behar izanez gero, departamentu horri dokumentuak aurkitzeko behar diren datu guztiak eman beharko dizkio.

5. Interesdunak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkatu ahal izanen du aurreko ataleko b), c), g) eta h) ataletan zehaztutako dokumentuak lortu ez izana.

22. artikulua. Izapidetzeko onartzea merkataritza-establezimendu bat jartzeko baimena udalez gaindiko plan sektorial baten bidez lortzeko eskabidea.

1. Organo eskudunak egiaztatuko du interesdunak aurkeztutako dokumentazioa foru lege honetan eskatzen dena dela.

2. Aurkeztutako dokumentazioa legez exijitzekoa dena baldin bada, ebazpen bat emanen da, zeinaren bidez izapidetzeko onartuko baita merkataritza-establezimendu bat udalez gaindiko plan sektorial baten bidez jartzeko baimenaren eskabidea.

3. Interesdunak exijitzekoa den dokumentazioa aurkeztu ezean, Administrazioak huts hori zuzentzeko errekerimendua egingen dio, eta gutxienez ere hamar eguneko epea emanen dio horretarako.

Administrazioak errekerimendua egin ondoren eta interesdunak aintzat hartzen ez badu, Administrazioak baimena ezesteko ebazpena emanen du, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. Eskaria bestelako izapiderik gabe ezetsi ahal izanen da, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta interesdunari entzun ondoren, ondorioztatzen denean nabarmen urratzen direla legedia eta lurralde antolamendu indarduna.

5. Egokitzen jotzen bada, Administrazioak interesdunari, irizpenak edo txostenak sinatzen dituzten teknikariei eta eraikina egin nahi den udal dermioko toki administrazioari errekerimendua egin ahal izanen die, aurkeztutako dokumentuak argitu edo osa ditzaten, eta horretarako epe bera emanen die.

Errekerimendua interesdunari zuzenduz gero, hura ez betetzeak 3. idatz-zatian zehaztutako akats-zuzenketa ez betetzeak izanen lituzkeen eragin berak izanen lituzke.

Errekerimendua toki administrazioa zuzenduz gero, berriz, epea errekerimendu hori bete gabe iragan bada, ebazteko epea deuseztatu eta interesdunari beste errekerimendu bat igorriko zaio, epe berdinarekin. Bigarren errekerimenduari ere erantzunik ematen ez bazaio, prozedurak bere bidea egingen du eta administrazio eskudunak gaitasuna izanen du langile arduradunei diziplina-erantzukizuna exijitzeko, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42.7 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

23. artikulua. Udalez gaindiko plan sektorialaren edukia.

1. Udalez gaindiko plan sektorialak Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 43. artikuluan ezarritako gutxienezko edukia izanen du. Halaber, foru lege honetako 25. artikuluan ezarritako irizpideen balorazioa bilduko du.

2. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 43.3 artikuluan jasotzen den jardueraren bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlana urbanizazio-jarduerari dagokiola ulertuko da, eta inola ere ez merkataritza-establezimendu handiaren bideragarritasun ekonomikoari.

24. artikulua. Udalez gaindiko plan sektorialak egiteko prozedura.

Udalez gaindiko plan sektorialak Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 45. artikuluan ezartzen den moduan egin eta onetsiko dira.

25. artikulua. Udalez gaindiko plan sektoriala onesteko irizpideak.

1. Udalez gaindiko plan sektoriala onesteko, honako irizpideak eta alderdiak baloratu beharko dira

a) Foru lege honetan eta Lurraldearen Antolamenduko Planetan ezarritako irizpideei jarraituz prestatu izana.

b) Proiektuak hiri-ingurunean eta hiri-esparruan duen eragina.

c) Lurraldeen arteko oreka.

d) Ingurumenean duen eragina. Ingurumenearen arloko arau sektorialen arabera dela ebaluatuko da. Halaber, eragindako mugikortasunetik heldu diren CO<sub>2</sub>ren emisio atmosferikoen kalkulua hartuko da kontuan; izan ere, proiektua kokatuta dagoen eremuko emisioen batez bestekoaren 100eko 20az azpikoak izan beharko dute, salbu eta ezarrita dagoen eremuko inguruabar bereziek ezinezkoa egiten badute emisio maila horretara iristea.

Betiere, establezimenduaren funtzionamendutik eta sortutako mugikortasunetik heldu diren CO<sub>2</sub>ren emisioari buruzko kalkulua hirigintzagarapena bukatzen denerako kalkulatzaren emisioen batez bestekoa baino ehuneko hogeitik beheitikoa izan beharko du.

e) Bide-sarea eta irisgarritasuna. Horretarako bereziki hartuko dira kontuan bide publiko kolektiboan bitartez iristeko modua egotea eta joan-etorriak larriago ez bihurtzea. Behar adinako bide publiko eta proportziozkoak (mugikortasun azterlanean aurreikusitako neurketaren 100eko 30) ez egoteak udalez gaindiko plan sektoriala ez onartzea ekarriko du, horretarako ezintasuna edo aparteko inguruabarrak justifikatu ezean.

f) Hondakinen kudeaketa eta eragin akustikoa. Eta sortzeko den merkataritza-gunearen energia-konsumoaren zenbatespena.

g) Merkataritza-kokapena eta formatuen aniztasuna, herritarrei ahal den aukera gehien bermatze aldera.

2. Halaber, merkataritza-establezimendu handiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Teknologikoki eskueran daudenean, ibilgailu elektrikoak kargatzeko hornigailu bat jartzea salmentarako azalera erabilgarriko 2.500 metro koadro bakoitzeko.

b) Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak eskatzen duen efizientzia energetikoaren sailkapena edukitzea.

26. artikulua. Udalez gaindiko plan sektorialaren indarraldia.

Merkataritza-establezimendu handi bat ezartzea baimentzen duen udalez gaindiko plan sektorialak mugarik gabeko indarraldia izanen du, hurrengo artikuluan araututako salbuespen baka-rrekin.

27. artikulua. Udalez gaindiko plan sektoriala iraungitzea.

1. Nafarroako Gobernuak merkataritza-establezimendu handi bat ezartzea baimendu duen udalez gaindiko plan sektorial bat iraungitzea erabaki ahal izanen du, baldin eta interesdunak ez badu hiru urteko epean jarduera abian jarri, betiere hari egoztekoa den arrazoiren batengatik.

2. Iraungitzeari buruzko deklarazioak espresa beharko du izan, eta interesdunari entzunaldia eman ondoren emanen da.

3. Iraungitzeari buruzko deklarazioa interesdunari eta jarduera kokatu nahi zen dermioko udalari jakinaraziko zaie.

28. artikulua. Merkataritza-establezimendua jartzeko baimena eskualdatzea.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko baimena behar duten establezimenduak eskualdatzeko, Nafarroako Gobernuak merkataritzaren arloko departamentu eskudunari jakinarazi beharko zaio aurretik.

2. Interesdunak, aurreko idatz-zatian araututako komunikazioarekin batera, lehiaren defentsaren arloan exijitzen diren betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.

## 29. artikulua. Tasa.

1. Merkataritza-establezimendua jartzeko baimena lortzeko eskabideak honako tasa hau sortuko du: proiektaturiko establezimenduaren erakustokiko eta salmenta-guneko azalera erabilgarriko metro koadro bakoitza bider 4 euro egitearen emaitza.

2. Tasa hori kasuko eskariarekin batera ordaindu beharko da. Tasa ez ordaintzeak prozedura ez abiatzea ekarriko du.

3. Foru lege honetako 22.4 artikulua arabea eskaria izapidetzeko ez onartzeari buruzko erabakiak ordaindutako tasa itzultzea ekarriko du”

Sei. 32. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“32. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

Merkataritza-establezimenduak lanegunetan eta jarduera garatzeko gainerako egunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeina gehienez ere hamabi ordukoa izanen baita, merkataritza bakoitzak libreki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubideak ezertan kaltetu gabe.

Beren jarduera garatzeko saltokiek asteko lanegunetan izanen duten ordutegi orokorrak ezin izanen du 72 orduko kopurua gainditu”.

Zazpi. 33. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“33. artikulua. Jaiegunetan irekitzea.

1. Igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodunak izanen Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-jardueran aritzeko, berariaz baimendutakoak izan ezik.

2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak urtero, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatokiari entzun ondoren eta urteroko irailaren 1a baino lehen, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak. Zortzi izanen dira egun balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.

3. Egutegia departamentu horren foru agindu baten bidez aldatu ahal izanen da, kasuko udal dermioetan interesdunak diren udalek bi hilabete-ko aurrerapenarekin aurkeztutako eskari arrazoitu bat aurkeztuta.

4. Jaiegunetako irekitzeko eta ixteko ordutegia merkataritza libreki finkatuko du, baina ezin izanen du eguneko hamabi orduko kopurua gainditu”.

Zortzi. Zortzigarren titulua aldatzen da. Hona testu berria:

“ZORTZIGARREN TITULUA  
Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren  
Behatoki Aholku-emailea

63. artikulua. Behatokiaren eratzea eta osaera.

1. Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea eratzen da, Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretarako duen organo aholku-emaile gisa. Haren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamendu bidez garatuko dira.

2. Honakoak izanen dira Behatokiaren eginkizunak:

a) Arloko administrazio eskudunek merkataritzari buruz eskatutako txostenak eta kontsultak egitea.

b) Merkataritza-sektorearen gaineko foru lege proiektuei buruz eta Nafarroako Gobernuaren gainerako xedapenei buruz informazioa ematea.

c) Urtero Nafarroako Foru Komunitatearen merkataritzaren egoerari buruzko txosten bat egitea, eta bereziki sektorea modernizatzeko planen garapenaren jarraipena egitea. Halaber, udal planetan sarturiko erakarpen planen jarraipena egitea.

d) Nafarroako merkataritza-establezimenduen eroldaren mantentze zuzena sustatzea, merkataritza lurraldean izanen duen banaketa egokiaren jarraipena egiteko tresna gisa, betiere sektorea ordezkatzeko duten entitateekin eta Nafarroako toki entitateekin lan eginez.

e) Lurraldearen antolamenduko planen merkataritza-banaketa printzipioak bete daitezela sustatzea eta foru lege honetako printzipioak lurralde-ekintzako planen idazketan integratzea.

f) Saltoki txikiak babesteko neurrien garapena sustatzea, hura laguntzeko planak garatuz lau urtez behin egin beharreko modernizazio eta lehiakortasun planen bitartez.

g) Nafarroako toki entitateei zuzendutako merkataritza ekintzako planen garapena sustatzea. Plan horiek erregio mailako ardatz-gune eta erregio-azpiko ardatz-gune gisa definituko dira Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Planaren barruan, betiere dentsitate handiko bizitoki-eremu-etan eta 4.500 biztanletik gorakoetan.

h) Erregelamendu bidez ezarritako bestelakoak.

3. Kontseilu Aholku-emailean behar bezala ordezkaturik egon behar dira Nafarroako Foru Komunitatean sektoreko ordezkariak duten eragile ekono-

miko eta sozialak; alegia, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofiziala, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Merkataritza Elkartearen Federazioa, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, eta sektorean presentzia duten erakunde sindikalak eta enpresa erakundeak.

4. Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari atxikiko zaio.

5. Nafarroako Gobernuak, aurrekontuetako mugen barrenean, behar diren bitarteko ekonomikoak jarriko ditu Merkataritzaren Behatoki kideek eskatutako azterlan eta txostenak garatzeko eta, bereziki, ordezkaritza duten eragile ekonomiko eta sozialek sektoreari laguntzeko proposaturiko neurriak lortze aldera interesekoak diren azterlanak egiteko.

Bederatzi. 69. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“b) Merkataritza-establezimendu bat udalez gaindiko plan sektorial baten bidez baimentzeko baldintzak urratzen dituzten jardueretan aritzea, arau-hauste larriak edo oso larriak ez badira.”

Hamar. 69. artikuluko 4. idatz-zatiko b) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“b) Eraikuntza jarduerak egiten hastea, nahiz eta obretarako udal lizentzia batez baimenduta egon, kasuko merkataritza-establezimendua jartzeko baimena lortu ez bada merkataritza-establezimendu handi bat jarri, zabaldu edo lekualdatzeko udalez gaindiko plan sektorial baten bidez.”

Hamaika. 76. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“76. artikulua. Helburuak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako jarduerak helburu izanen dute merkataritza-formula desberdinen arteko oreka bilatzea eta merkataritza-sektore tradizionala eta haren lehiakortasuna mantentzea, bultzatzea eta modernizatzea, lehia librea ezertan kaltetu gabe. Horiezaz gainera, beste helburu hauek ere izanen dituzte:

a) Banaketaren arloko enpresa txiki eta ertainen gaitasun teknologikoa hobetzea.

b) Saltoki txiki eta ertainen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea.

c) Saltoki txikien eta ertainen enpresa-integrazioa sustatzea, sektoreko eta tokiko enpresa taldeetan, eresketa-zentraletan eta enpresa-integratiorako bestelako moduetan.

d) Nafarroako udaletan merkataritza-erakarpeneko planen garapena sustatzea. Plan horiek erregio mailako ardatz-gune eta erregio-azpiko ardatz-gune gisa definituko dira Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Planaren barruan, betiere dentsitate handiko bizitoki-eremuetan eta 4.500 biztanle-tik gorakoetan.

e) Enpresen dibertsifikazioa sustatzea eta kalitate eta prestakuntza planak bultzatzea, bereziki bezeroaren arretari dagozkionak, enpresa txikiaren bereizgarri gisa.

f) Espezializatorako, modernizatorako eta kudeaketa hobetzeko neurriak eta tresnak sustatzea.

2. Helburu horiek garatzeko, Nafarroako Gobernuak, erakunde sozial, enpresarial eta profesionalen ados jarrita, merkataritza txikia laguntzeko plan bat prestatuko du. Plan horretan, besteak, beste, foru lege honetan jasotako laguntza-neurriak jasoko dira.”

Hamabi. 77. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“77. artikulua. Laguntza neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak, behar den erregelamendu bidezko garapenaren bitartez, merkataritzaren sektore zabalduko ditu sektore industrialerako dauden laguntzak –esate baterako, inbertsioa eta enpleguaren sorrera sustatzea–, Nafarroako merkataritza txikia eta ertaina laguntzeko planetan aurreikusitako laguntza- eta lehiakortasun-neurriak garatzearen bitartez, betiere sektorearen berezko ezaugarriak kontuan harturik.

2. Nafarroako Gobernuak, eragile eta erakunde enpresarialekin batera, prestakuntza orokorreko plan bat egingen du, lanerako prestatzeko eta langileak birziklatzeko beharriari eta enpresa-kudeaketa hobetzeko prestakuntza berariazkoa izateko beharriari erantzuteko.

3. Nafarroako Gobernuak behar diren jarduerak egingen ditu saltoki txikien elkarteak sustatzeko, Nafarroako herrietako hiri-bilbea dinamizatzeke eta sektoreko modernizazioa laguntzeko bide gisa.

4. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako toki entitateekin eta merkatarien ordezkaritza duten elkarteekin batera, merkataritza-erakarpeneko planak garatuko ditu, Nafarroako herrietako merkataritzaren erakarpena antolatzeke, dinamizatzeke eta hobetzeko, horren barne direla irisgarritasunerako, mugigarritasunerako eta enpresa-ehunaren dinamizatorako planak.

5. Nafarroako Gobernuak behar diren ekimen eta jarduerak abiaraziko ditu sektorea nazioan edo

erkidegoan dauden programetara eta baliabideetara erraztasunez eta osotasunez iristeko, beste eremu batzuetan dauden laguntzak eta finantziak homogeneizatzeko xedez.

6. Egun dauden merkataritza ekipamenduen modernizazioa sustatzeko eta merkataritza-establezimendu handien kokapenak ukitutako merkataritza-eremuen gaineko jarduerak egiteko, Nafarroako Gobernuak Nafarroako tokiko tributuei buruzko legedi berekia alda dadin bultzatuko du, eta horretarako, behar diren sustapen neurriak eta integratutako administrazio eta entitateekiko itunak sustatuko ditu.

Tributu horiekin biltzen den dirua hiri-merkataritza berritzeko eta hobetzeko programetara bideratuko da, lurraldearen antolamenduko jarraibideen arabera hartarako prestatzen den merkataritza-jarduerarako planean ezartzen diren lehentasunekin eta helburuekin bat”.

Hamahiru. Bosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Nafarroako merkataritza-establezimenduen errolda sortzen da, Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari atxikia.

Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean merkataritza-establezimenduen titularrak diren pertsonak eta edozein eratako izaera juridikoko entitateek horren berri eman beharko diote merkataritza-establezimenduen erroldari. Horretarako komunikazio bat igorri beharko diote foru erkidegoko kudeaketa bateratuko bulegoari edo sektorea ordezkatzeko duten eta lurraldean behar adinako presentzia duten enpresa-elkarteei. Elkarre horiek alde aurretik entitate laguntzaile gisa gaitu beharko ditu merkataritzaren arloko eskumena duen departamentuak. Erroldarako eginiko komunikazioak erregelamendu bidez ezartzen diren moduaren eta baldintzen arabera egin beharko dira.

Gobernuak behar diren baliabide ekonomikoak jarriko ditu Nafarroako merkataritza-establezimenduen errolda garatzeko eta gaurkotuta edukitzeko”.

**Lehen xedapen gehigarria.** Udal planeamenduetan orokorra berrikustea.

Udal planeamendua berrikusten den unean edo foru lege hau indarrean sartzen denetik lau urteko gehieneko epean, administrazio eskudunak behartuta daude Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 18.2 artikuluan ezartzen diren determinazioak sartzera, foru lege honetan duten idazketa berriaren arabera”.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Ebaluazio txostena.

Foru lege honek indarra hartu eta, gehienez ere, urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak Parlamentuari txosten bat igorriko dio, non ebaluatuko baitira foru lege honen aplikazioak merkataritza-establezimenduak jartzerakoan izan dituen ondorioak. Kasua bada, arlo horretako erregulazioan hobekuntzak proposatzeko erabili ahal izanen da txostena.

**Xedapen iragankor bakarra.** Aldi baterako araubidea.

1. Foru Lege honek indarra hartu aurretik hasitako baimen prozedurak eskabidea aurkeztu zen unean indarra zuen araudiaren arabera tramitatu eta ebatziko dira.

2. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, interesdunak atzera egin dezake bere eskaeran eta araudi berria aplikatzea aukeratu, betiere ebazpena eman aurretik.

3. Foru lege honek indarra hartzen duen egunean gaikuntza duten zerbitzu-emaleek jardunean jarraitu ahal izanen dute Nafarroan.

4. Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 19.6 artikuluan –foru lege honetan eman zaion testuaren arabera– xedatutakoa dela eta (merkataritza-establezimendu handiak egoitza-erabilera nagusiko lurzoru urbanizagarrietan edo hiri lurzoruetan soilik jarri ahal izatea), Nafarroako Gobernuak salbuespenak ezarri ahal izanen ditu, foru lege honek indarra hartu eta hamabi hilabeteko epean.

Salbuespena, zeina justifikatua eta haztatua izanen baita, merkataritza-establezimendu handi bat ezartzeko plan sektorialaren udalez gaindiko eraginari buruzko deklarazioa egiteko unean eginen da. Horretarako, betiere, establezimenduak honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Hiri lurzoruan edo foru lege honek indarra hartzeko garaian halakotzat sailkaturiko lurzoru urbanizagarrian egotea, eta urbanizazioari buruzko kudeaketa tresna guztiak eta proiektu guztiak behin betiko onetsita egotea foru lege honek indarra hartu baino lehen edo, gehienez ere, foru lege honek indarra hartu eta zortzi hilabeteko epean.

b) Establezimendua ezartzeko obrak udalez gaindiko plan sektorialaren behin betiko onespentik urtebeteko epean hasi behar izatearen baldintzapean emandako baimena.

Nolanahi ere, ezarpen horretarako, aplikatzekoak izanen dira halakoak onesteari buruz foru lege honetan jasotako gainerako irizpide guztiak.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten lege edo erregelamenduzko xedapen guztiak, bereziki:

a) Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen artikuluko hauek: 7. artikuluko 2. idatz-zatia, bigarren tituluko III. kapitulua, Baimena behar duten beste saltoki batzuk, (30. eta 31. artikulukoak), 51. artikulua, 52. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letra, 53. artikulua, 54. artikulua eta zazpigarren titulua, Merkataritza lehiaketak (57. artikulutik 62.era bitartekoak).

b) Nafarroako Saltoki Handien Lurralde Ereduaren Erregelamendua onesten duen martxoaren 29ko 150/2004 Foru Dekretua.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 169., 170., 171. eta 172. artikulukoak.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamenduzko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren erregelamendu-arau guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indar-hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



## **Foru Legea, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 152. artikulua ezarritakoarekin bat, aipatutako Foru Legea gehiengo osoz onetsia izan da, proiektua bere osotasunean bozkatua izan ondoren.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez Nafarroako Toki Adminis- trazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak foru lege hau onetsi den egun berean onetsi du Barne Merkatuko Zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko xedez zenbait foru lege aldatzen dituen Foru Legea. Haren proiektuaren 4. artikuluan Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean egin beharreko aldaketak jaso ziren. Aldaketa horiek, ordea, bereizi eta foru lege honetara ekarri dira; izan ere, foru lege hori aldatzeko beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuko kideen gehiengo osoak onestea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 20.2 eta 18.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 151. artikuluan xedatuaren arabera.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea Barne Merkatuko

zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzea helburu, honela geldituko dira foru lege horretako ondoko manuak:

Bat. 92. artikulua testu hau izanen du:

“92. artikulua.

1. Nafarroako toki entitateek ahal den informaziorik zabalena eskainiko dute bere jardunaz, eta herritar guztiek herriko bizitzan parte hartzea erraztuko dute. Era berean, elkarteak bultzatu eta herritarrek toki administrazioan parte hartzeko erakundeak sustatuko dituzte.

Parte hartzeko elkarte eta erakundeen eta toki entitateen arteko harremanak erregelamendu organiko baten bidez arautuko dira.

2. Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz finkatzen dituzten partaidetza moduek, bitartekoez eta prozedurek ezinen dituzte gutxietsi legez araututako ordezkartitza-organoei dagozkien erabakitze ahalmenak.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren partaidetza moduak garatzeko, elkarte eta erakunde horiei ekitaldiei buruzko ahalik eta informazio zabalena emanen zaie, eta bultzatuko da entitatearen kudeaketan parte har dezaten, aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera. Horretarako, legeak onartzen dituen herritarren partaidetza-elkarteek onura publikoko deklarazioa jasotzen ahalko dute.

4. Halaber, toki entitateek, eta bereziki udalek, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera elkarreragilea bultzatu beharko dute, herritarren partaidetza eta herritarrekiko komunikazioa errazteko, agiriak aurkezteko eta herritarren kontsultak, inkestak nahiz administrazio-izapideak egiteko, haiek arautzen dituen foru legearen esparruan.

5. Zerbitzu jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzko arauen esparruan sartutako zerbitzu jarduera bat jarri eta betetzeko prozedura eta izapideen kasuan, zerbitzuaren emailek leihatila bakarra erabiliz bete ahal izanen dituzte zerbitzu horiek, bide elektronikoaz baliatuz eta urrutitik, salbu eta zerbitzua emateko erabiltzen den tokia edo ekipoa ikuskatzea.

Era berean, toki entitateek sustatuko dute zerbitzuaren emailek aukera izan dezaten leihatila

bakarrean lortzeko jarduera jarri eta betetzeko behar diren informazioa eta inprimakiak, bai eta euren eskaerei dagokienez agintari eskudunek emandako ebazpenen eta gainerako jakinarazpenen berri izateko ere.

6. Foru Komunitateko Administrazioak laguntza eman beharko die artikulu honetako 4. eta 5. idatz-zatietan ezarritakoa behar bezala garatu ezinik gertatzen diren entitateei, ekonomia eta kudeaketa arloan gaitasunik aski ez badute.

7. Foru Komunitateko Administrazioak ziurtatuko du leihatila bakarra bide elektronikoz baliatzean araudi indarduna betetzen dela nafar herritarren hizkuntza eskubideei dagokienez.”

Bi. 180. artikulua testu hau izanen du:

“180. artikulua.

1. Esku-hartzea ondoko bitartekoen bidez gauzatzeko ahalko da:

a) Ordenantza eta bandoak.

b) Aldez aurreko lizentzia eta beste kontrol ekin-tza batzuk. Halere, zerbitzu jarduerak libreki jarri eta betetzeari buruzko arauen aplikazio esparruan sartutako zerbitzu jarduerak jaso eta betetzea arau horien menpe egonen da.

c) Aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizuneko aitortpena eskatuta, oinarritzko legedian xedatutakoarekin bat.

d) Jarduerari ekin ondorengo kontrola ezarrita, jardueraren gaineko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

e) Egintza bat bete edo debekatzeko manu diren banakako aginduak.

2. Beste administrazio publiko batzuek emandako lizentziek edo baimenek ez dituzte titularrak salbuesten kasuan kasuko toki entitateen lizentziak eskuratzeko beharretik; edozein kasutan ere, lege sektorialetan xedatutakoa bete beharko da.

3. Administrazioak partikularren jardueran esku hartzeko xedapen orokorrei eta egintza bakanei buruzko araubide juridikoa, baita haien erabakitzeko prozedura ere, foru lege honen IX. tituluaren I. kapituluak izaera orokorraz agintzen duenari lotuko zaio.”

Hiru. 319. artikuluan 4. idatz-zatia ezabatu da.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indarrik gabe geratuko dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Erregelamenduzko ahalmena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Legea, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena.

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru Legea, Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzen duena

### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea onetsi zuen 2001. urtean, Nafarroako Foru Komunitateak garapen bidean dauden herrialdeekin elkartzunez jokatzeko politika publikoa arautzeko.

Nafarroako Lankidetzarako lehenengo Plan Zuzentzaileak bere ildo estrategikoen artean kudeaketaren kalitatea hobetzea sartu du, eta beste helburu estrategiko batzuen ondoan dago Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren aldeko diru-laguntzen arloan indarra duen araudia egokitu eta garatzea.

Xede horretarako, beharrezkoa da Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea gaur egungo egoerari egokitzeta, zenbait agindu aldatuz. Hala, IV. kapitulua moldatuko da lehenik, Nafarroako Lankidetzarako Plan Zuzentzailearen arabera egokitzeko, bertan lankidetzarako aurreikusi diren modalitateak eta baliabideak jasoz. Halaber, ekitatearen printzipioa jaso da, jada ezarrita zegoen eraginkortasunaren printzipioaz gainera, garapenerako laguntza ofizialaren izaera banatzailea kontuan hartuta. Kapitulu horretan berean sartu dira garapenerako lankidetzari dagokionez diru-laguntzen arloan beharrezkoak diren espezialitateak, laguntza hauek eraginkorrak izan daitezen eta onuradunentzat bideragarriak.

V. kapituluan lankidetzarako eragiletzat jotzen dira garapenerako gobernu kanpoko erakundeak, lankidetzarako funtsen 100eko 95 baino gehiago

erakunde horiek kudeatzen baitituzte. Gainera, erakunde horiek nahitaezkoa izanen dute Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta egotea, funts publikoak lortu nahi badituzte.

Zerga arloan, garapenerako gobernu kanpoko erakundearen zerga araubidea fundazioen araubidearekin (uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean arautuarekin) parekatu da.

VI. kapituluan estilo eta argitasun arrazoiengatik egin dira aldaketak, eta mugatu egin dira lankidetzarako kontu-sailekin ordaintzen ahal diren gastuak.

Azkenik, VII. kapitulua aldatu da, garapenaren nazioarteko lankidetzaren arloko arau-haustek eta zehapenak eguneratzeko, bai isunen zenbatekoak bai zehapen prozeduraren erregulazioa.

**Artikulu bakarra.** Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzea.

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legean aldatzea hauek egin dira:

Bat. Honela idatzita agertuko da 3.h) artikulua:

“h) Garapenerako lankidetzaren arloan esku-menak dituzten Nafarroako administrazio publiko guztiak elkarlanean arituko dira, guztiek batera eskura dituzten baliabide publikoak ahalik eta hobekien aprobetxatzeko”.

Bi. Honela idatzita agertuko da 10. artikulua:

“10. artikulua. Nafarroako Garapenaren aldeko Kontseilua.

Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseilua Administrazioaren kide anitzeko organo aholku-emaitza eta parte-hartzailea da, Nafarroako Foru Komunitatearen nazioarteko garapenerako lankidetzaren arloko politika zehazterakoan.”

Hiru. Honela idatzita agertuko da 11. artikulua:

“11. artikulua. Kontseiluan ordezkariak izanen dituzten entitateak edo organoak.

1. Kontseiluak departamentu eskuduneko kontseilaria izanen du buru eta honakoek izanen dute eskubidea bertan ordezkari izateko: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, zeinak ez baitu

inolaz ere izanen kideen gehiengoa; Parlamentuko taldeak (Nafarroako Parlamentuko kide diren edo ez diren ordezkarien bidez); Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa; Nafarroan dauden unibertsitateak; Foru Komunitatean ordezkari handiena duten sindikatuak eta enpresa elkarteak eta Nafarroako garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundeak.

Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen kasuan, haien ordezkari Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen Koordinakundearen barruan hautatuko da.

Kontseiluko kideak izendatzean, gizonen eta emakumeen ordezkari paritarioa sustatuko da.

2. Kontseiluak lehendakariorde bat ere izanen du, kontseiluak berak hautatuko duena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari ez diren artetik.

3. Kontseiluaren barruan Batzorde Iraunkorra eratuko da. Beste batzorde edo lan taldeak ere eratu ahalko dira.

4. Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta jardunbidea erregelamendu bidez ezarriko dira, Kontseiluan ordezkariak duten erakundeak entzun ondoren.

5. Batzorde Iraunkorraren eta, kasua bada, batzordeen eta lan taldeen osaketa, antolamendua eta jardunbidea Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko dira, lehendakariaren proposamenari jarraikiz.

6. Kontseilua biltzen ahal izanen da gizarte entitateen ordezkariak eskatuta, erregelamendu bidez ezarriko denari jarraikiz.

7. Kontseiluak zilegi izanen du garapenerako lankidetzaren arloko adituen aholkularitza eskatzea.”

Lau. IV. kapituluaren izenburua honako hau izanen da:

**“IV. KAPITULUA  
Baliabideen esparrua”**

Bost. Honela idatzita agertuko da 13. artikulua:

“13. artikulua. Garapenerako lankidetzaren modalitateak.

Nafarroako administrazio publikoak, garapenerako lankidetzaren esparruan, modalitate hauen bidez arituko dira:

a) Lankidetzak ekonomikoa: funts ekonomikoak erabiltzea giza garapen integral, parte-hartzaile eta jasangarrirako programak eta proiektuak sustatzeko, honako arlo hauetan: soziokulturala, insti-

tuzionala, ekonomiko-finantzarioa, zientifiko-teknikoa, hezkuntzakoa eta ingurumenekoa; horietan gizarte zibilaren sendotzea bultzatuko da eta giza eskubideak errespetatuko dira.

b) Lankidetzak teknikoa: milurte honetako garapen helburuak lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak sendotzea bultzatzen duten proiektuetan laguntzea, bai eta herrialde pobretuen garapen endogenoan zuzenean edo zeharka aritzen diren pertsonen eta antolakundearen gaitasuna sendotzeko proiektuetan ere, aholkularitza teknikoaren, prestakuntzaren eta trebakuntzaren eta ikerketa aplikatuaren bidez, eta hori guztia Nafarroako eta herrialde bazkideetako profesionalen eta adituen artean ezagutza trukatzuz eta transferituz.

c) Laguntza humanitaria: laguntza ekonomikoa ematea dela hondamendi naturalengatik dela giza ekintzagatik larrialdian edo berehalako arrisku larrian dauden giza taldeak lagundu eta birgaitzeko proiektuei. Gainera, egoera horietan dauden giza talde zaugarrien bizitza babesteko helburua ere badu, xede bereizezinak baitira laguntza, babesa eta prebentzioa.

d) Garapenerako hezkuntza: garapenerako hezkuntzako programak eta proiektuak egitea, bai eta iritzi publikoa eta Nafarroako gizarte oro har sensibilizatzeko ekintzak eta kanpainak ere. Horiek guztiak garapen bidean dauden herrialdeen egoera ulertzera eta haiekiko elkartzasuna bultzatzera bideratuta egon behar dira. Eragin eta konpromiso politiko eta sozialeko ekintzak ere sartzen dira, bai erakunde publikoenak bai gizarte zibilarenak; eta jarrera etiko eta arduratsuak bultzatzen dituzten ekintzak”

Sei. Honela idatzita agertuko da 14. artikulua:

“14. artikulua. Jarduteko baliabideak.

Aurreko artikuluan deskribatu diren garapenerako lankidetzak modalitateak gauzatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek honako baliabide hauek izaten ahalko dituzte jarduteko, eta horiek erregelamendu bidez garatzen ahalko dira:

a) Garapenerako lankidetzak ekintzak sustatzeko funts publikoak erabili ahal izatea.

b) Nafarroako administrazio publikoen lankidetzak teknikoa, dela bakarka arituz dela Espainiako aldebiko lankidetzarekin eta alde askotako lankidetzarekin batera arituz.

c) Erakundeen adierazpenak, eta garapen orokor, iraunkor eta harmonikoa sustatzen duten herri ekimenei laguntza ematea”

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 15. artikulua:

“15. artikulua. Eraginkortasuna eta ekitatea.

1. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 5.1 artikuluan ageri diren printzipioez gainera, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko diru-laguntzak ekitatearen printzipioari eta aberastasuna birbanatzearen printzipioei jarraikiz emanen dira, foru lege honen 3. artikuluan aipatzen den izaera solidarioarekin bat.

2. Helburuak hobeki erdiesteko eta baliabideei etekin handiagoa ateratzeko, Nafarroako administrazio publikoek kofinantziazio araubidean eginen dituzte ekintzak, lehentasunez; zilegi izanen dute zenbait administrazioen ekarpenekin funtsak eratzeara programa edo proiektu komunetarako, eta, bestalde, garapenerako lankidetzan ari diren eragileen arteko informazio trukea bultzatuko dute.”

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua:

“16. artikulua. Garapenerako lankidetzan aritzeko diru-laguntzak.

1. Garapenerako lankidetzan aritzeko diru-laguntza guztiak azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean xedatutakoaren arabera izanen dira, eta espezialitate hauetakoa:

a) Diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrietan kontrarik agertzen ez bada, aurrerakin gisa ordainduko dira.

b) Baldin eta diru-laguntzen aurrerakinak 1.000.000 eurokoak edo handiagoak badira urtean, beharrezkoa den kalifikazioa eduki beharko da edo, bestela, bermeak ezartzea eskatu ahalko da. Kopuru txikiagoak izanez gero, ez da beharrezkoa izanen bermeak ezartzea.

c) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat.

Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

d) Baldin eta, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaz gain, funts edo baliabide berekiak nahiz pribatuak edo bestelako diru-laguntza publikoak erabiltzen badira jarduerak kofinantzatzeko, frogatu egin beharko dira funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jardueretara aplikatu izana, entitateak berak emandako ziurtagiriaren bidez funts pribatuen kasuan edo zenbatekoa eta

proiektua zehazten dituen aldeko ebazpenaren kopiaren bidez diru-laguntza publikoen kasuan.

e) Tokiko bazkidea nazioarteko erakunde bat bada, Espainiak izenpetutako nazioarteko akordio edo itunetan legez ezarritako moduan eman beharko ditu kontuak.

f) Laguntzak hartzen dituzten herrialdeetako toki entitateen agiriak egiaztatzeari dagokionez, elkarrekotasun printzipioa errespetatuko da, haien baliabide fisiko eta materialen errealitatea aintzat hartuta. Ez da inolaz ere eskatuko Espainiako administrazio publiko bati eskatzen zaiona baino agiri gehiago, non eta Kanpo Arazoetarako Ministerioak kontrakoa gomendatzen ez duen.

g) Deialdietako oinarrietan ezarri ahalko da frogagiri gisa onartzea kontabilitateko auditoretzak, baldin eta kontuen zinpeko aztertzaileek eginak badira.

Kontu-auditoreek atzerrian aztertzen badituzte justifikazio-kontuak, azterketa egiten den herrialdean jarduten duten auditoreek egin ahalko dute azterketa hori, baldin eta herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubidea badago.

Herrialde horretan lanbidean jarduteko habilitazio-araubiderik ez badago, han kokatutako auditore batek egin ahalko du idatz-zati honetan aurreikusitako azterketa, baldin eta Administrazioako organo emaileak berresten badu, hartzailerearen proposamenari jarraikiz, haren izendapena, behar bezalako kalitatea ziurtatzen duten irizpide teknikoekin bat.

2. Edozer arrazoi dela eta, Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako lankidetzaren funtsaren gerakin bat baldin badago esleitu gabe, diru-laguntzetarako presako deialdia onetsiko da berriz ere, Nafarroako foru lege honetan ezarritakoan oinarrituz.

Epeei dagozkien arrazoiengatik nahiz beste inguruabar batzuegatik beste deialdi hori egitea ezinezkoa baldin bada, gerakineko kopuru esleitu gabea Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak kudeatuko du zuzenean.

3. Deialdietako oinarrietan zehaztu beharko dira gehieneko epeak, emandako diru-laguntzen balorazioa, ebazpena, azken txostena eta ordainketa egiteko. Prozesu eta epe horiek egokiak eta duden lankidetzaren tresnei eta errealitatei egokituak izan beharko dute.

4. Deialdian ezarritako ebazpen- eta ordainketa-epeak betetzen ez badira, emandako kopurua handitu beharko du Administrazioak, entitateek

ordaindu behar izan dituzten banku-abalen kostua jaso arte hain zuzen ere.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak behar diren kontrol eta ebaluazio tresnak ezarriko ditu funts publikoak erabiltzean legezkotasuna eta eraginkortasuna berma daitezen, Compotos Ganberak legez bere dituen eskumenak ezertan galarazi gabe.”

Bederatzi. Honela idatzita agertuko da 19. artikulua:

“19. artikulua. Lankidetzaren eragileak.

Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzaren eragileak ondoko hauek izanen dira:

– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

– Nafarroako toki administrazioak.

– Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, hau da, legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten entitate pribatuak, baldin eta bere helburuen artean edo berariazko xede gisa –beraien estatutuen edo dokumentu baliokidearen arabera– badute garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa esparruekin –foru lege honen seigarren artikuluan aipatuekin– lotutako jarduerak gauzatzea. Erakunde horiek Nafarroako Foru Komunitateak garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan dituen solaskide iraunkorrak eta lehentasunezkoak dira; solaskidetasun hori foru lege honen 11. artikuluan xedatutako arloan da eragingarria.

– Entitate eta pertsona juridikoak, beren berariazko helburuen artean garapenerako lankidetzak bada, nahiz eta xedeetan irabazi asmoa izan; dena den, irabazi asmoa ez dute aplikatzen ahalko garapenerako lankidetzaren jardueretan, foru lege honen 3. artikuluko i) atalean ezarritako doakotasunaren printzipioari jarraikiz.

– Garapen bideko zein herrialderekin ezarritako lankidetzak, herrialde horietako tokiko bazkideak edo kontraparteak.”

Hamar. Honela idatzita agertuko da 21. artikulua:

“21. artikulua. Nafarroako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen erregistroa.

Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Gobernuz Kanpoko Erakundearen Erregistroan inskribatzea ezinbesteko baldintza da administrazio publikoek ematen dituzten diru-laguntzak edo garapenerako laguntza ofizial gisa konputatzen direnak jasotzeko.”

Hamaika. Honela idatzita agertuko da 22. artikulua:

“22. artikulua. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen eta haienezko ekarpenen zerga araubidea.

1. Fundazioen tributu araubidea, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean arautzen dena, aplikatuko zaie, Sozietateen gaineko Zergari, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari eta Toki Tributuei dagokienez, foru lege honen 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribaturik dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei.

2. Foru lege honen 6. artikulua ezartzen dituen ekintza arloetako jarduerak gizarte laguntzat hartzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 17.1.17 artikuluan ezartzen den salbuespena izateari begira.

3. Pertsona fisiko eta juridikoek 21. artikuluan aipatutako erregistroan inskribatuta dauden garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei egiten dizkieten ekarpenek eskubidea emanen dute uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen II. tituluko I. eta II. kapituluetan aipatzen diren pizgarriak izateko, bigarren eta hirugarren xedapen gehigarrietan ezarritakoa kontuan hartuta.

4. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 21. artikuluan aipatzen den erregistroan inskribatutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeei aplikatu beharreko zerga araubidea, uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean eskatutako baldintzak betetzen ez direnean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen X. tituluko XII. kapituluaren ezarritakoa izanen da.”

Hamabi. Honela idatzita agertuko da 24. artikulua:

“24. artikulua. Administrazio publikoetako langileak.

1. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek zilegi izanen dute garapenerako lankidetzak ekintzetan parte hartzea, bai administrazio horien beren programetan edo proiektuetan bai garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen, nazioarteko erakundeen edo beste administrazio publiko batzuen programa edo proiektuetan.

2. Langile horiek beren administrazio publikoaren programa edo proiektuetan parte hartzen dutenean, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie, eta jarduneko zerbitzuan jarraituko dute

ondorio guztietarako, non eta horrek ez dakarren beren lanpostuan ordezkatu beharra.

Kasuan kasuko administrazioak garapenerako nazioarteko lankidetzari begira jartzen dituen kontu-sailen kargura ordainduko dira langile horien parte-hartzeak sortzen dituen joan-etorri, mantenu eta material kostuak.

Administrazio publiko bakoitzak komeni diren aseguru osagarriez hornituko ditu langileak, kasuan kasuko programen edo proiektuen aurrekontuaren kargura.

3. Langile horiek boluntario edo borondatezko lankide gisa parte hartzen badute Nafarroako administrazio publikoen funts publikoekin finantzatutako garapenerako gobernuz kanpoko erakundeen proiektuetan, nazioarteko erakundeen proiektuetan edo beste administrazio publiko batzuen proiektuetan, eta parte-hartze horrek urtean hila-bete baino gehiago irauten badu, lanpostuan ordezkatu beharra izan edo ez, zerbitzu berezietara pasatuko dira, aplikatzekoa den araudian administrazio egoera horretarako ezarritako ondorioekin; eta parte-hartze hori urtean hila-bete edo gutxiago irauten badu, aldi baterako zerbitzu eginkizuna emanen zaie langileei antolamendu arloko beharrezanek horretarako bide ematen badute, eta ezezkoa ematen bada, berriz, behar bezala arrazoitu beharko da.

Langile horiek zein departamentukoak diren, departamentu horrek hartu beharko ditu bere gain egoera horietatik heldu diren langile-kostuak, eta nazioarteko erakundeek definitutako Nafarroako Gobernuaren garapenerako laguntza ofizial gisa hartu ahalko dira.”

Hamahiru. Honela idatzita agertuko da 29. artikulua 1. idatz-zatia:

“29. artikulua. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak.

1. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak dira foru lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoari kontra egiten dioten egite edo ez-egite guztiak.”

Hamalau. Honela idatzita agertuko da 33. artikulua:

“33. artikulua. Zehapenak.

1. Garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko arau-hausteak ondokoaren arabera zehatuko dira:

1.1. Arau-hauste oso larriek 10.000 eurotik 150.000 eurora bitarteko isuna izanen dute. Zehapenak ezartzeko eskumena duen agintaritzak era-

baki dezake, horrez gain, foru lege honen 6. artikuluari dagozkion jardueren finantziatorako diru-laguntzak lortzeko eskubidea kentzea hiru urtetik bost urtera bitarteko epean.

1.2. Arau-hauste larriek 6.000 eurotik 9.999 bitarteko isuna izanen dute. Zehapenak ezartzeko eskumena duen agintaritzak erabaki dezake, horrez gain, foru lege honen 6. artikuluari dagozkion jardueren finantziatorako diru-laguntzak lortzeko eskubidea kentzea urte batetik hiru urtera bitarteko epean.

1.3. Arau-hauste arinek 600 eurotik 5.999 eurora bitarteko isuna izanen dute, eta gainera ohartarazpena.”

Hamabost. Honela idatzita agertuko da 36. artikulua:

“36. artikulua. Zehapen prozedura.

Zehapen prozedura Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluan ezarritakoa izanen da.”

Hamasei. Bigarren xedapen gehigarria horrela geldituko da.

“Bigarren xedapen gehigarria. Salbuespenezko eta lehentasunezko laguntzak.

Edozein motatako hondamenditatik heldu diren salbuespenezko inguruabarrak edo egoerak gertatzen baldin badira, Nafarroako Gobernuak bereziki hartuko ditu kontuan inguruabar horiek garapenerako lankidetzara bideratutako laguntzak eta herrialdea berreraikitzen laguntzen duten proiektuak sustatzera kudeatzerakoan.”

Hamazazpi. Azken xedapenetako bigarrena honela idatzita agertuko da:

“Azken xedapenetako bigarrena.

Baimena ematen zaio garapenerako lankidetzaren arloko kontseilari eskudunari, Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluari entzun ondoren, epez epe berritzeko foru lege honetan ezarri diren isunen zenbatekoak.”

**Lehen xedapen iragankorra.** Hasitako prozeduretako diru-laguntzen tramitazioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasi diren diru-laguntza prozedurek aurreko legeriaren araberrako tramitazioarekin segituko dute, nahiz eta horrek ez duen galaraziko foru lege hau aplikatzea onuradunentzat egokiagoak diren arloetan.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta lau hilabete epean, erregelamendu bidez garatuko da bermeen sistema, hau da, Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 16. artikuluko 1.b) atalean aipatzen dena.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabete epean onetsiko da Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluaren osuera eta jardunbidea arautuko duen erregelamendua.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea aldatzea.

2010eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldien ondorioetarako, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen

uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatiaren 3. zenbakia honela idatzita agertuko da:

“3. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloan eskuduna den Ministerioko Erregistroan inskribatuak nahiz erregistro horretan inskribatu gabe egon arren inskribatzeko eskabide formala egin dutenak, fundazioaren edo elkartearen forma juridikoa badute eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen badituzte.

Inskribaturik ez daudenen kasuan, inskribatzeko eskabidea egiten denetik sei hilabete igarota inskripziorik egin ez badute, lortutako onura fiskalak eta eskubideak ezeztatuko zaizkie.”

**Azken xedapenetan laugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

---

## Foru lege proiektua, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa.

### OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordera igorri da.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko Foru Legea**

#### ZIOEN AZALPENEA

Ezgaitasunen bat duten pertsonen talde heterogeneo bat osatzen dute, baina horiek guztiak komunean dute, neurri batean edo bestean, berme osagarriak behar izatea eskubide guztiak baliatuz bizi ahal izateko edota gainerako herritarren baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko bitzita ekonomiko, sozial eta kulturalean.

Foru lege hau onestea justifikatzen duten arrazoiak dira gizartean desberdintasunek bere horretan dirautela, nahiz eta Konstituzioak ez bairik gabeko aldarrikapenak egiten dituen eta ahalegin handia egin den oraindik indarrean dagoen legearen oinarrituta; eta are garrantzitsuagoa dena, "ezgaitasuna" ulertzeko moduan izandako aldaketa eta, ondorioz, ikuspegi eta estrategia berrien sorrera.

Izan ere, gaur egun jakina da ezgaitasunen bat duen pertsona batek jasan behar izaten dituen oztopoen jatorria pertsona horrek dituen zailtasunetan dagoela, baina baita ere, eta batez ere, pertsona ertainen neurriari eginiko gizartean bertan ezartzen diren oztopo eta mugetan ere, herritar horien erabateko parte-hartzea eragozten baitute.

Hori horrela izanik, beharrezkoa da esku-hartzeko estrategiak diseinatu eta abian jartzea, aldi berean eragiteko baldintza pertsonaletan eta ingurari buruzko baldintzetan.

Ikuspegi horrekin lotuta, badira bi esku-hartzeko estrategia, nahiko berriak direnak eta, jatorri desberdinak izan arren, pixkanaka bat egiten ari direnak, hala nola bereizkeriaren kontrako borroka eta irisgarritasun unibertsala.

Bereizkeriaren kontrako borrokaren estrategia sartzen da zenbait gutxiengok tratatu berdintasuna eta aukera berdintasunerako eskubidea lortzeko eginiko bide luzean.

Irisgarritasun unibertsala nahitaezko baldintza da gizartea osatzen duten pertsona guztiak aukera-berdintasunean beren eskubideak erabili ahal izateko, eta haien giza duintasunaren nahiz beren nortasunaren garapen aske eta osoa erdiesteko.

Hogei urte baino gehiago igaro dira oztopo fisiokoak eta zentzumenezkoak kentzeari buruzko Foru Legea onetsi zenetik eta, hori dela eta, beharrezkoa da beste arau bat onestea, hura ordezkaturako duena eta ezgaitasunen bat duten pertsonen normalizaziorako eta gizarte integrazioarako politiki bultzada emanen diona.

Gaur egun, aipatu eskubide eta askatasun horiek dira ezgaitasunaren arloko jardueren ildo nagusietako bat; halaxe aitortzen da Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako abenduaren 2ko 51/2003 Legean, hura garatzen duten erregelamenduetan eta Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan, zeina Espainian indarrean sartu baitzen 2008ko maiatzaren 3an eta Nafarroako Parlamentuak berretsi baitzuen urte bereko irailaren 15ean.

1978ko Espainiako Konstituzioak bere artikuluetan zehar zenbait arau jasotzen ditu, zeinetan

hainbat modutan defendatzen eta babesten baitira pertsona guztien eskubideak, edozein dela ere pertsona horien egoera fisikoa, mentala edo soziala.

Horrela, 1. artikulua herritar guztien berdintasuna eta askatasuna ezartzen ditu, zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoaren esparruan.

9.2 artikulua botere publikoak behartzen ditu bideak jartzera norbanakoen nahiz taldeen askatasuna eta berdintasuna bene-benetakoak izan daitezzen; askatasun eta berdintasun xede hori galarratzen edo osotara garatzea zailtzen duten oztopoak kentzera, eta herritar guztiei aukera egokia ematera bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean parte hartzeko.

Horrela, bada, askatasun eta berdintasun printzipioa irisgarritasun unibertsalarekin elkartu behar da, zeren eta, zenbait kasutan, bata ezin baita bestea gabe existitu.

Bestalde, Konstituzioko 49. artikulua arabea, botere publikoek aurreikuspen, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze politika egiten duten gutxitu fisiko, sensorial eta psikikoei dagokienez; beharrezkoa duten laguntza espezializatua emanen diete, eta bereziki babestuko dituzte titulu horrek herritarrei ematen dizkien eskubideak gozatu ahal izan ditzaten.

Konstituzioko 10. artikulua ezartzen du ezen Konstituzioak aitortzen dituen oinarrizko eskubideei eta askatasunei dagozkien arauak interpretatzeko orduan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalari eta gai honetan Espainiak berretsiak dituen nazioarteko tratatu eta hitzarmenei begiratuko zaie.

Azken puntu horri dagokionez, azpimarratu beharrezkoa da gai hau garatzen duen nazioarteko araudia. Besteak beste, aipatzekoa da Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioa, 2006ko abenduaren 13koa, gure herrian barne-zuzenbidea dena, zeinak babestu eta bermatu egiten baititu ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak bizitzako arlo guztietan, hezkuntza, osasuna, lana, kultura, aisia, parte-hartze sozial eta ekonomikoa, eta irisgarritasuna azaltzen baitu arlo guztietara hedatzen den zeharkako elementu gisa. Garrantzi berezia hartzen du lanabes juridiko honek, aitortzen baitu zer garrantzia duen ingurune fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturalaren, osasunaren, hezkuntzaren, informazioaren eta komunikazioen irisgarritasunak, ezgaitasunen bat duten pertsonak osoki baliatu ahal izan ditzaten giza eskubide eta funtsezko askatasun guztiak.

Nazioarteko arau horretako 2. artikulua "komunikazio" gisa definitzen ditu ondokoak: lengoaiak, testu-bistaratzea, braille-a, ukipen bidezko komunikazioa, makrotipoak, irisgarritasun errazeko multimedia-gailuak, idatzizko lengoia, entzumen-sistemak, lengoia sinplea, ahots digitalizatuaren bidezko bitartekoak eta bestelakoak, komunikazioa areagotzeko bitartekoak eta formatuak, edo ordezkiko komunikazio-bitartekoak, informazioaren teknologia eta irisgarritasun errazeko komunikazioak barne. "Arrazoizko egokitzapen" gisa, berriz, ondokoak: beharrezko eta egoki diren aldaketak eta egokitzapenak, zama neurrigabea edo behar ez bezalakoa ekartzen ez dutenak, eta kasu zehatz batean beharrezkoak direnean, ezgaitasunen bat duten pertsonen giza eskubide eta funtsezko askatasun guztien gozamina edo erabilera bermatzeko. "Diseinu unibertsal" gisa definitzen ditu, azkenik, produktu, ingurune, programa eta zerbitzuak diseinatzea, pertsona guztiek erabili ahal izateko modukoak, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik behar gabe, ahal den neurrian, eta oinarrizko elementutzat jotzen ditu erabateko irisgarritasuna lortzeko eta, horrela, irisgarritasun unibertsala konbentzioaren printzipio orokorretako bat dela aitortzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan, Nafarroako Foru Komunitateari eskumen osoa eman zion lurralde antolamendu, hirigintza eta etxebizitzaren arloan, bai eta erkidegoan interesa eta eragina duten herrilaren arloan ere. Halaber, 49.1.f) artikuluan eskumen osoa eman zion foru erkidegoko garraioaren arloan, eta artikuluko bereko b) letran eskumen osoa ematen zaio Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen arloan, Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak errespetatzeko.

Bestalde, 55.1 artikuluan ezartzen denez, Nafarroari dagokio soinuen eta telebista seinaleen irrati-hedapenaren araubideari buruzko legegintza garapena egin eta betearaztea, Irrati eta Telebistaren Estatutu Juridikoa arautzeko Legeak ezarri bezalako kasu eta moduetan, eta, era berean, 56.1.b) artikuluan ezartzen da Nafarroari dagokio, Konstituzioak xedatutako moduan, industria gaiei buruzko eskumen osoa.

Foru lege honen bidez zenbait kontzepturen berrikusketa sakona egiten da. Hala, ezgaitasunen bat duten pertsonaren kontzeptuak ordezkatzeko du lehengo terminologia, argituz egoera hori, norbanakoaren faktoreez gain, inguru sozialaren ondorio ere badela, giza eskubideek berezkoak dituzten

balio jakin batzuk bere egiten dituen “sozial” deituriko arreta ereduaren arabera.

Irisgarritasun unibertsala, ororentzako diseinua, gizarteratzea bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean, aukera-berdintasuna, bizitza beregaina, elkarrizketa zibila, arrazoizko egokitzapenak, normalizazioa eta zeharkakotasuna: guztiak ere indarrez agertzen diren kontzeptu eta printzipioak dira, nazioarteko ezgaitasun-politika berriei gehiago egokitzen zaien esanahia daukatenak, eta printzipio modernoagoak hartzen dituztenak, ezgaitasunen bat daukaten pertsonen buruzko ikusmolde berriari loturikoak.

Halaber, foru legearen xedean sartuko dira ere orain arte indarrean egon den Oztopo Fisiko eta Zentzumenezkoei buruzko 1988ko Legean jasotzen ez diren zenbait alor; hain zuzen, informazioaren gizartereekin eta telekomunikazioekin zerikusia duen alorrera, bai eta administrazio publikoen ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearekin zerikusia duen alorrera ere.

Foru lege honen xedea da ongizate orokorren maila igotzea eta xedapenak eta arauak ezartzea, irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua errazteko, herritar guztiek ingurune, ondasun eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez.

Foru lege honek oinarri gisa hartzen du Aukera Berdintasunari, Diskriminazio Ezari eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea, eta bigarren belaunaldiko araudi bat sortzen da, irisgarritasunari buruz lehenago zegoen araudiaren bitartez berdintasunaren oinarriak ipini ondoren, ezgaitasunen bat duten pertsonen berariazko beharrezko konstantzia utzita, baina haien eskubideen etengabeko hobekuntza bati zuzendua, esparruak eta gara daitezkeen harremanak zabalduz. Lotura bat ezarri beharko da, jadanik ezgaitasun zehatz batera mugatuta ez dagoen giza talde baten interesen eta oro har gizarterearen hobekuntzaren artean, eta hori guztia, administrazio publikoek beraien herritarren ongizatearen bermatzaile diren aldetik beren buruari exijitu behar dizkieten interes eta betebeharrekin.

Administrazio Publikoak premiatzen dira foru lege honetan xedatutakoa bete eta kontrola dezaten, bai eta legearen xedea sustatu eta bultzatzen ere. Halaber, zenbait eginkizun osagarri esleitzen zaizkio jarraipen batzorde bati, zeinak jasoko baitu Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeratarako abenduaren 3ko 51/2003 Legearen 15. artikuluan adierazitako espiritua, alegia ezgaitasunen bat dutenen sektoreak dagozkion politiketan parte hartzeari buruzkoa.

Nafarroako administrazio publikoek gaur egun dauden oztopoak ezabatzeko ekimenak hartzea izanen da foru legearen eta hura garatuko duten arauen eta herritar guztientzat integrazio eta ongizate maila hobekitzeko asmo sendoaren bermerik handiena.

## I. TITULUA

### Foru legearen xedea eta printzipioak

#### I. KAPITULUA

##### Foru legearen xedea

###### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasuna bermatzea, irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinuari dagokionez, halako moduz non inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izan behar baitute, segurtasun eta erasotasun baldintzetan eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere.

###### 2. artikulua. Printzipioak.

Hona hemen foru lege honek oinarri dituen printzipioak:

1. Irisgarritasun unibertsala. Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasun eta erasotasun egoeran eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. “Orentzako diseinua” estrategia du abiapuntu printzipio honek, eta ulertzen da hori ez dela eragozpen izanen erabaki beharrekoak diren arrazoizko egokitzapenak egiteko.

2. Orentzako diseinua. Irisgarriak eta ahalik eta erabiltzaile gehienek erabiltzeko modukoak diren produktu, zerbitzu eta inguruneak proiektatzea eta merkaturatzea da. Produktu, zerbitzu edo ingurune bat ororentzako diseinatua izateko gomendagarriak diren arauak honakoak dira: erabilera parekagarria izatea, bai eta malgua, sinplea eta intuitiboa ere; informazio hautemangarria eta errakuntza-tolerantzia eskaintzen duena, eta irismen nahiz erabilerarako ahalegin fisiko, tamaina eta espazio txikiak eskatzen dituenak.

3. Gizarteratzea. Prozesu bat da, zeinaren bitartez gizarteratzeak erabat hartzen baitute parte bizi diren gizarteren, eta bizitza ekonomiko, politiko eta kulturean. Parte-hartze prozesua ulertzen da prozesu gisa, zeinaren bitartez bizitza sozial, poli-

tiko eta ekonomikoari eragiten dioten ekimen, erabaki eta baliabideen gaineko kontrolari eusten baitzaio. Gizarteratzeak honako egintza hauek dakartzatza:

Lehena. Aldaketak lege-esparruan.

Bigarrena. Ezgaituek berek edo beren erakundeek parte hartzea.

Hirugarrena. Ezgaituek osatzen duten giza taldearen trebetasunak eta gaitasunak sustatzea.

Laugarrena. Erkidego-izaerako loturak sortu eta sendotzea.

Bosgarrena. Ezgaitasun-egoeraren ondoriozko ahulezia-faktoreak murriztea.

Seigarrena. Baliabideen aprobetxamenduan berrikuntza eta optimizazioa sustatzea.

Zazpigarrena. Helburu kualitatiboek lehentasuna ematea kuantitatiboek gainean.

Zortzigarrena. Ikusmolde dimentsioaniztuna eta diziplinartekoa ezartzea.

Bederatzigarrena. Beharrian berezietarako berariazko erantzunak taxutzea.

Hamargarrena. Eragileen inplikaziorik handiena sustatzea: departamentuak, alorrak, entitateak eta erakundeak.

4. Aukera-berdintasuna. Eezgaitasunen batean oinarritutako ezein bereizkeriarik ez egotea da, zuzenkerik zein zeharkakorik, bai eta ekintza positiboko neurriak hartzea ere, ezgaitasunen bat duten pertsonak bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalan eta sozialean osoki parte hartzeko izan litzaketen edo dituzten desabantailak saihestu edo berdintzeko.

5. Bizitza beregaina. Halako egoera bat da non ezgaitasunen bat duten pertsonak euren bizitzaren gainean erabakitzeke ahalmena erabiltzen duten, eta bere erkidegoko bizitzan parte hartze aktiboa duten, nortasuna libreki garatzeko eskubidearekin bat.

6. Elkarrizketa zibila. Printzipio honen bitartez, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen dute, legeek eta gainerako arau-xedapenek ezartzen dutenari jarraituz, ezgaitasunen bat duten pertsonen alorrean garatzen diren politika ofizialen prestaketan, gauzatzean, jarraipenean eta ebaluazioan.

7. Arrazoizko egokitzapenak. Ingurune fisikoa eta soziala eta jarrera orokorrak ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrian berariazkoetara egokitzeko neurriak dira, zeinen bitartez modu eragin-

garri eta praktikoan eta aldaketa gehiegi egin beharrik gabe lortuko baita ezgaitasunen bat duen pertsonen irrisgarritasuna edo gainerako herritarren baldintza beretan parte hartu ahal izatea.

8. Normalizazioa. Printzipio horren arabera, bizitza normala egin ahal izan behar dute ezgaitasunen bat duten pertsonak, beste edozein pertsonak eskueran dituen leku, esparru, ondasun eta zerbitzu berak eskueran izanda.

9. Zeharkakotasuna. Printzipio horren arabera, administrazio publikoek egiten dituzten jarduerak ez dira mugatzen beren-beregi pertsona hauentzat pentsaturiko plan, programa eta ekintza berariazkoetara, baizik eta barnean hartzen dituzte izaera orokorreko politikak eta ekintza-ildoak, jarduera publikoaren edozein esparrutakoak, betiere aintzat harturik ezgaitasunen bat duten pertsonen beharrianak eta eskaerak.

## II. KAPITULUA

### Foru legearen esparrua

#### 3. artikulua. Esparrua.

Foru lege honen esparrua izanen da hirigintza-ren prozesuekin eta ezaugarriekin zerikusia duen oro, hiri altzariak eta obrak direla-eta jartzen diren behin-behineko babes-elementuak eta seinaleak barne. Halaber, foru lege honen esparrua osatzen dute, irrisgarritasun unibertsalaren printzipioetara egokitzeari dagokionez, erabilera publikoko gune libreki izan beharreko diseinuak eta ezaugarriak, bai eta informazioaren gizartea deiturikoaren berezko elementuek ere. Foru lege honek orobat jasotzen du administrazio publikoaren ondasunak, baliabideak eta zerbitzuak baldintza beretan izatea eskuragarri.

Foru lege honen aplikazio-esparrua honakoa izanen da:

- a) Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea.
- b) Urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak.
- c) Garraiobideak.
- d) Jendearentzat eskuragarri dauden ondasunak eta zerbitzuak.
- e) Administrazio publikoekiko harremanak.
- f) Unibertsitateak eta hezkuntza-sistema.

**4. artikulua.** Informazioaren eta telekomunikazioen gizartea.

Informazioaren eta telekomunikazioen gizartearen alorrean, Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioak zainduko du irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko printzipioak betetzen direla sinadura elektronikoa edo webgune publikoetarako sarbideak bezalako elementuetan, bai eta zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoetan ere. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, bere eskumenen esparruan, hitzarmenak eginen ditu telekomunikazioen alorreko enpresekin, berma dezaten ezgaitasun fisiko edo zentzumenezkoren bat duten foru erkidegoko herritarren irisgarritasuna bezeroak artatzeko zerbitzuak eskuratzean. Halaber, eta xede berarekin, hitzarmenak eginen dira foru erkidegoaren esparruan jarduten duten telebista eta irrati digitaleko enpresekin.

**5. artikulua.** Nafarroako Administrazio Publikoaren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea.

Foru lege honen xedea da, besteak beste, irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua administrazio publikoaren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzearen esparruan, bereziki giza baliabideei eta baliabide materialei, jendea artatzeko bulegoiei eta Nafarroako Administrazio Publikoaren inprimaki eta ereduiei dagokienez.

## II. TITULUA

### Aplikatzekoak diren xedapenak eta neurri orokorrak eta berariazkoak

**6. artikulua.** Irisgarritasun globalaren kudeaketa eta erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak kasuan kasuko erregelamenduaren bidez arautuko du Nafarroako Foru Komunitateko hirigintzaren arloko eta hiri altzarien, erabilera publikoko gune libreen, barneko guneen, garraio publikoaren eta telekomunikazioen arloko ezaugarriari aplikatzekoak diren xedapen orokor eta berariazkoekin zerikusia duen oro, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseiluari kontsulta egin ondoren.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren administrazioko prozesu guztiak erregulatuko ditu, halako moduz non, arauak onetsi aurretik, kasuan kasuko organo edo zerbitzuak irisgarritasun eta ezgaitasun eraginari buruzko txostenak egin beharko dituen.

Nafarroako Gobernuak legedia indarduna gartuko du, administrazio-prozedurak arautze aldera, Nafarroako gainerako administrazio publikoek, entitateek eta enpresa publikoek, muntako akordioak hartu aurretik, irisgarritasun- eta ezgaitasuneraginari buruzko txostenak egin eta, aldeaz aurretik, espedienteetan sar ditzaten.

Beti ere, Foru Komunitateko Administrazio Publikoek honako arau hau bete beharko dute: UNE 170001-2:2001, Irisgarritasun globala. Inguruaren irisgarritasuna errazteko irizpideak eta 2. zatia: irisgarritasun globala kudeatzeko sistema. Irisgarritasun globala kudeatzeko sistema bat ezartzea beharrezkoa izanen da eraikitako inguruaren edozein alde, ondasunak eta zerbitzuak irismenean edukitzeko aukerak bermatzeko, bai eta pertsona guztiek haiek autonomia handiagoz erabili ahal izatea ere, alde batera utzirik beren adina edo balizko ezgaitasuna.

**7. artikulua.** Diskriminazioaren aurkako neurriak.

Diskriminazioaren aurkako neurritzat jotzen dira helburu gisa daukatenak prebenitzea edo zuzentzea ezgaitasunen bat duen pertsona bat zuzenean nahiz zeharka onberatasun gutxiagoz tratatua izatea halakorik ez duen beste pertsona bat baino, antzekoa edo konparagarria den egoera batean.

Diskriminazioaren aurkako neurritzat joko dira jazarpen-ekintzak debekatzen dituztenak, eta exijitzen dutenak irisgarritasun unibertsala, ororentzako diseinua eta, irisgarritasun unibertsala exijitzea posible ez denean, arrazoizko egokitzapenak egin beharra, pertsona guztien erabilera eta irismena erdiesteko. Administrazio publiko eskudunek laguntza publikoaren araubide bat ezarri ahalko dute, arrazoizko egokitzapenak egin beharretik heldu diren kostuei aurre egiten laguntzeko.

**8. artikulua.** Ekintza positiboko neurriak.

Ekintza positiboko neurritzat jotzen dira berariazko laguntza batzuk, bideratuta daudenak ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean txertatzeko eta osoki parte hartzeko daukaten desabantailak edo zailtasun bereziak prebenitu edo berdintzera, ezgaitasun-mota eta -gradu ezberdinak aintzat harturik.

Ekintza positiboko neurriak mamitu ahalko dira laguntza osagarrietan eta arau, irizpide eta jokabide onuragarriagoetan. Laguntza osagarriak honakoak izan ahalko dira: laguntza ekonomikoak, laguntza teknikoak, laguntza-zerbitzu pertsonala, zerbitzu espezializatuak eta komunikaziorako laguntza eta zerbitzu osagarriak.

**9. artikulua.** Oinarrizko baldintzak.

Oinarrizko irisgarritasun-baldintzek eta diskriminaziorik ezari buruzkoek neurri zehatzak ezarriko dituzte esparru edo arlo bakoitzerako, diskriminazioak prebenitu edo ezabatuzko, eta desabantailak edo zailtasunak berdintzeko. Xeda-

penak ezarriko dira honako alderdiei buruz, gutxienez ere:

a) Sektore edo arloan erabilitako eraikin eta inguruneen, tresna, ekipo eta teknologien eta ondasun nahiz produktuen irisgarritasun-betekizunak. Bereziki, instalazioetara sartzeko oztopoak kentzea eta ekipoak nahiz tresnak egokitzea.

b) Esparru edo alor bakoitzeko baliabideen irismen-, partaidetza- eta erabilera-baldintzarik onuragarrienak eta arau, irizpide eta jokabideetan diskriminaziorik ez egoteko baldintzak.

c) Laguntza osagarriak, hala nola laguntza ekonomikoak, sostengurako laguntza teknologikoak, zerbitzu edo tratamendu espezializatuak eta bestelako zerbitzu pertsonalak.

d) Barne-arauak ezartzea enpresetan edo zentroetan, ezgaitasunen bat duten pertsonen irisgarritasun unibertsalari dagokionez pairatzen dituzten desabantailen edo diskriminazio-egoera orokorren ezabaketa sustatzen dutenak edo helburu horretarako pizgarri direnak.

e) Irisgarritasun-betekizunak ezartzeko eta baldintzarik onuragarrienak eta diskriminazioaren aurkakoak ezartzeko planak eta egutegiak.

f) Kasuko esparruan irisgarritasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko baliabideak eta bitartekoak, pertsonalak nahiz materialak.

Oinarrizko irisgarritasun-baldintzak eta diskriminazioaren aurkakoak araututa daude Aukera Berdintasunari, Diskriminazio Ezari eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legea garatzeko araudian.

### **III. TITULUA** **Arau orokorrak**

#### **I. KAPITULUA**

##### **Sustapena, bultzada eta parte-hartzea**

**10. artikulua.** Sustapena, bultzada eta parte-hartzea.

Administrazio publikoek irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua ziurtatu beharko dituzte foru lege honetan deskribaturiko alorretan, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izanda ere. Halaber, eskatu beharko dute proiektuak egokitu daitezen foru lege honetan eta legea garatuko duten erregelamenduetan ezarritako parametroetara.

Sentsibilizazioa, prestakuntza eta diskriminaziorik ezaren nahiz aukera-berdintasunaren sustapena, irisgarritasun unibertsalarekin batera, gizar-

teko sektore guztienganaino iristea lortzeko premiazko ekintzak dira. Ezgaitasunen bat duten pertsonen beren ekarpenak beharrezkoak diren esparru guztietan parte har dezaten sustatuko da.

Administrazio publikoek garatu eta sustatuko dituzte informazio-jarduerak, sentsibilizazio-kanpainak, prestakuntza-ekintzak eta aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapenerako beharrezkoak diren bestelakoak.

Horretarako, sustapen-lana egingen da, ezgaitasunen bat duten pertsonen bere kasa nahiz beren ordezkari-erakundeen bitartez parte har dezaten, ezgaitasunarekin zerikusia duen orotan, haiei dagozkien erabakiak prestatzen, taxutzen eta hartzen, eta administrazio publikoen zeregina da, bakoitzaren eskumenera esparruan, parte-hartze hori egiazkoa eta eraginkorra izan dadin ziurtatzeko baldintzak sustatzea. Era berean, aurreikusten da pertsona horiek presentzia iraunkorra izatea administrazio publikoetako parte-hartze eta aholkularitza organoetan, baldin eta organo horien eginkizunek zuzeneko zerikusia badute ezgaitasunen bat duten pertsonentzat eta beren familientzat lehentasunezko interesa duten alorretan eragina duten gaiekin.

Administrazio publikoek sustatuko dituzte ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza beregaina errazteko beharrezkoak diren jarduerak, parte hartzea eta onartuak izatea eskatzen duten pertsonen horretarako aukera izan dezaten behar diren baldintzak ezartzen dituzten programen bitartez.

Administrazio publikoek erraztasunak eta laguntza emanen dituzte araudi teknikoak garatzeko, eta dagoen araudia berrikusteko, halako moldeez non ziurtatuko baita diskriminaziorik ez egotea teknologia, produktu, zerbitzu eta ondasunen prozesu, diseinatze eta garapenean, horretarako lan-kidetzan arituz normalizazio- eta egiaztatze-entitate eta erakundeekin eta zeresana duten eragile guztiekin, ezgaitasunen bat duten pertsonen bizitza-kalitatea ziurtatzearen.

#### **II. KAPITULUA**

##### **Betetzea, kontrola eta defentsa-neurriak**

**11. artikulua.** Betetzea eta kontrola.

Nafarroako Gobernuak eta administrazio publikoek –plangintza eta exekuzio tresnak nahiz foru lege honetan xedatutakoa aplikatzekoak zaizkien kasuak jasotzen dituzten proiektuak, edonolakoak izanda ere, izapidetzeko eta onesteko eskumena dutenek– egiaztatuko dute ea proiektu horiek foru lege honetako eta legea garatzeko erregelamenduetako xedapenetara egokitzen diren.

Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduan jasotako xedapenak betetzea exijitu ahalko da plangintza eta exekuzio tresna onesteko, bai eta beharrezkoak diren lizentziak, inon bizitzeko baimena, lehen erabilerarako lizentzia eta babes ofizialeko etxebizitzaren kalifikazioa emateko.

Foru lege honetan aipatzen diren telekomunikazioen, informazioaren gizartearen zerbitzuen eta garraiobideen emakida eta erabilera arautzeko eta baimentzeko eskumena duten Nafarroako administrazio publikoek foru lege honetako ebazpenak eta erregelamendu bidez ezartzen direnak beteko dituzte beren xedapenetan eta betearaziko dituzte horren kariatara izapidetzen diren espedienteetan.

## **12. artikulua.** Arbitrajea.

Alderdiek beren burua arbitraje-sistemaren esanetara jartzea borondatezkoa izanen da, eta espresuki geratuko da jasota, idatziz.

Interesdun diren sektoreen ordezkariak, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta beren familiak ordezkatzeko dituzten erakundeen ordezkariak eta, zein bere eskumenen esparruan, administrazio publikoen ordezkariak osatuko dituzte arbitraje-organismoak.

Aukera-berdintasunerako, diskriminazioaren aurkako eta irisgarritasun unibertsalerako arbitraje-batzordea da arbitraje-sistemako kudeaketa- eta administrazio-organismo kolegiatua. Foru Komunitatean aukera-berdintasunerako, diskriminazioaren aurkako eta irisgarritasun unibertsalerako arbitraje-batzorde bat eratuko da, zeinaren jardueraren lurralde-esparrua bat etorriko baita Nafarroaren lurraldearekin.

Arbitraje-sistemaren xede izanen dira, ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari dagokienez, gai hauetakoren bati buruz sortzen diren kekek eta erreklamazioak:

a) Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea.

b) Urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak.

c) Garraiobideak.

d) Ondasun higigarri eta higiezinak, produktuak, zerbitzuak eta jarduerak, kontsumitzaileei azken erabiltzaile gisa zuzenean merkaturatzen zaizkienak, eta pertsona fisiko edo juridikoek, norbanakoek nahiz kolektiboek, profesionalek, establezimendu publiko edo pribatu, finko nahiz ibiltarietako titular direnek, produzitzen, eskuratzen, hornitzen edo igortzen dituztenak, zuzenbide pribatuko araubidean.

e) Zuzenbide pribatuaren alorreko harremanak administrazio publikoekin.

Ezgaitasunen bat duten pertsonentzat inguru-neak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatu, produzitu, hornitu edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek iragarri ahalko dute Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko aukera-berdintasunari, diskriminazio-ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko arbitraje-sistemari men egiten diotela, ezgaitasunarekin loturiko aukera-berdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorrean. Halaber, ezgaitasunen bat duten pertsonak eta beren familiak ordezkatzeko dituzten erakundeek, bai eta irabazi-asmorik gabeko izaera ekonomikoko erakundeek ere, arbitraje-sistemari men egiten diotela iragarri ahalko dute.

## **13. artikulua.** Legitimazio aktiboa.

Ukituak diren pertsonen banakako legitimazioa ezertan galarazi gabe, eskubide eta interes zilegi kolektiboaren defentsarako legalki gaituak diren pertsona juridikoek prozesu batean jardun ahalko dute horretarako baimena ematen duten pertsonen izenean eta interesen alde, haien eskubide indibidualak defendatuz eta xedetzat izanik aukera-berdintasunerako eta diskriminatua ez izateko eskubidea bermatzea; jardun horren ondorioek pertsona horiek ukituko dituzte.

## **14. artikulua.** Legitimazio pasiboa.

Demandatuak izan ahalko dira ezgaitasunen bat duten pertsonak diskriminazio-egoeretan jarrita foru lege honetan aitorturiko aukera-berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioak urratzen dituzten pertsona eta entitate guztiak.

## **15. artikulua.** Arau-haustek eta zehapenak

Foru lege honetan deskribaturiko esparruei dagozkien arau-hausteei aplikatuko zaie Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunaren eta irisgarritasun unibertsalaren alorreko arau-hausteei eta zigorrei buruzko abenduaren 26ko 49/2007 Legean ezarritakoa.

Arau-haustek izan daitezke:

1. Arinak: Foru lege honek ezarritakoarekiko irregulartasun formal bat denean.

2. Larriak:

a) Diskriminaziozko ekintzak edo ez-egiteak, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eragiten badute ezgaitasunen bat duen pertsonari emandako tratua antzekoa edo konparagarria den egoera batean dagoen beste pertsona bati emandakoa bezain faboragarria ez bada.

b) Foru lege honetako 2. artikuluko 8. idatzatiaz definituriko arrazoizko egokitzapeneko neurriak hartzeko ukoa eta irisgarritasun-betekizunak urratzea.

c) Foru lege honetako xedapenak betearazteko eskumena duten organoek ezartzen duten berriazko administrazio-betekizunak ez betetzea.

d) Ezgaitasunen bat duen pertsonaren gain edo edozein lege-ekintza mota abiarazi duten edo abiarazi nahi duten beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen gain egindako presio-mota oro.

### 3. Oso larriak:

a) Ez-betetze errepikatua, foru lege honetako xedapenak betearazteko eskumena duten organoek ezartzen dituzten berriazko administrazio-betekizunena.

b) Edozein presio-mota, arau honetan eta bere garapen-arauetan jasotako neurrien exekuziorako administrazio-botereen erabileraren esparruan diharduten agintarien gain ezarritakoa.

**16. artikulua.** Irisgarritasunaren nazioarteko ikurra.

Irisgarritasunaren nazioarteko ikurra, zeina oztopo fisiko eta zentzumenezkorik ez egotearen adierazlea baita, erabilera publikoko eraikin eta lokaletan jarri beharko da, bai eta bidaiarien zerbitzu publikoko garraio baliabideetan ere.

**17. artikulua.** Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseiluaren eraketa eta funtzionamendua.

1. Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseilua eratuko da, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikirik, aholku emateko eta parte hartzeko organo gisa; bertan ordezkatura egonen dira zeresana duten Nafarroako Gobernu departamentuen ordezkariak, eta horiez gain, ordezkariarik handieneko elkarteak, xede dutenak ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideak defenditzea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak eta inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak.

2. Kontseiluko lehendakari izanen da Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria, eta ondokoak, berriz, kontseilukide:

a) Honako alor hauetako bakoitzetik Nafarroako Gobernuaren ordezkari bana, gutxienez ere

zuzendari nagusi baten mailakoa: Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza, Berrikuntza, Gizarte Gaiak, Hezkuntza, Osasuna, Herri Lanak eta Garraioak, Ekonomia eta Kultura.

b) Ezgaitasunen bat duten pertsonen alorrean ordezkari handienekoak diren irabazi-asmorik gabeko entitateen hiru ordezkari.

c) Ordezkari zabalenerakoak diren kontsumitzaile- eta erabiltzaile-elkarteen bi ordezkari.

d) Inguruneak, produktuak, ondasunak eta zerbitzuak inportatzen, produzitzen, hornitzen edo eskuratzen dituzten izaera pribatuko pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarteen hiru ordezkari.

### 3. Kontseiluaren eginkizunak:

a) Foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoa bete dadin sustatzea.

b) Foru lege honi jarraikiz hura betetzeko betebeharra duten entitate eta pertsonen aholkua ematea, gaia dela-eta gerta daitezkeen auzi guztietan.

c) Teknika arloko aurrerapenak nahiz foru lege hau eta legea garatzeko erregelamenduetan aplikatzean jasotako iradokizunak aztertu eta biltzea, bai eta legearen helburuak betetzeko behar adina neurri har daitezkeen bultzatzea ere.

d) Foru lege honen eta legea garatzeko erregelamenduzko xedapenen edukia berrikustea eta haien aplikazioaren eraginkortasuna egiaztatzea, bidezkoak diren aldaketak proposatze aldera, lorturiko esperientzian eta eraginkorrak izan diren aurrerapenetan oinarrituta.

e) Zaintza eta kontrol lanak egitea, foru lege honetan deskribaturiko eskumen-esparruetako inguruneetan irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, zigor espedientea abia dezaten proposatzea erakunde eskudunei.

f) Urteko txostena egitea foru lege honetako xedapenen betetze-mailari buruz, eta ondoren Nafarroako Parlamentura bidaltzea txosten hori.

g) Arbitraje-batzordeak ezartzea eta arbitraje-sistemari buruzko auzien betetzearen jarraipena egitea.

h) Bere antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamendua onestea.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Foru lege honetan xedatutakora egokitze txostena.

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabete epean, Nafarroako Gobernu departamentu-



ek, zeinek bere eskumenen esparruan, txosten bana prestatuko dute, foru lege honetan xedatutakora egokitzeko planak noraino bete diren ebaluatzeko.

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabete epean, Nafarroako Gobernuako departamentuek, edota Lehendakaritza Departamentuak, Gobernu osoaren izenean, jarduketa plan bat aurkeztuko dute Nafarroako Parlamentuan, eta bertan finkatuko dira herritar guztien irisgarritasun eskubi-dearen inguruan egun dauden gabeziak ahal den eperik laburrenean zuzentzeko behar diren neurriak, egutegia eta diru zenbatekoak.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Igogailua instalatzea eta soilik ezgaitasunen bat duten pertsonentzako etxebizitzak.

1. Igogailua instalatzea nahitaezkoa izanen da behe-solairua eta jasotako hiru solairu edo gehiago dituzten obra berriko eraikinetan, etxebizitza baterako sarrera hirugarren solairu jasoan edo solairu hori baino gorago dagoenean.

Behe solairua eta jasotako solairu bat edo bi dauzkaten obra berriko eraikinetan, nahitaezkoa izanen da igogailu bat instalatzeko modua emanen duen espazio bat erreserbatzea, baldin eta bi etxebizitza edo gehiagotarako sarbide diren eskailerak badaude.

Jadanik eginda dauden etxebizitzetan, Jabetza Horizontalari buruzko Legeak araututakoari eutsiko zaio, bai eta aplikatzekoak diren foru araudiaren bidezko eguneratzeetan araututakoari ere.

2. Edonola ere, eta foru lege honetan ezarritako xedapenetatik aplikatzekoak zaizkienez gain, soilik ezgaitasunen bat duten pertsonentzako etxebizitzak egiteko proiektua dagoen eraikinetan ondoko baldintzak hartuko dira kontuan:

a) Ziurtatu beharko da ezgaitasunen bat duten pertsonentzako etxebizitzak eta erabilera komuneak guneak irisgarriak izanen direla pertsona horientzat, foru lege honetan eta bere erregelamenduetan ezarritako xedapen eta arauari jarraikiz.

b) Aipatu etxebizitza eta erabiera komuneak guneen diseinu eta exekuzioa foru lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduetan ezarritakoaren arabera egingen da, eta betiere ahalbidetuko dute ezgaitasunen bat duten pertsonak modu egokian erabili ahal izatea.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Irisgarritasuna eta diseinua gorrentzat, entzumen-ezgaitasunak dituztenentzat eta gor-itsuentzat.

Gorrei, entzumen-ezgaitasunak dituztenei eta gor-itsuei dagozkien irisgarritasun unibertsaleko

eta oroentzako diseinuko alderdiak egokitu beharko zaizkio urriaren 23ko 27/2007 Legeak ezarritakoari, zeinaren bitartez aitortzen baitira Espainiako zeinu-hizkuntzak eta arautzen baitira gorren, entzumen-ezgaitasunak dituztenen eta gor-itsuen ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak, bai eta hura garatzen duen araudiak ezarritakoari ere.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Sustapen publikoko etxebizitzak.

Sustapen publikoko etxebizitzetatik ezgaituentzat erreserbatutako ehunekoak etxebizitza horien barnealdea behin betiko banaketarik gabe mantendu beharko du, gutxienez ere eskaintza publikotik sei hilabete igaro bitartean, esleipen-hartzailaren ezgaitasunaren ondoriozko beharrezanetara egokituak izateko. Kasua bada, sustatzailea behartuta egonen da egokitzapen horiek egitera. Foru Gobernuak sei hilabete epean arautuko ditu beharrezkoak diren gutxienezko egokitzapenak.

**Lehen xedapen iragankorra.** Foru lege honetan xedatutakora egokitzea.

Foru lege hau indarrean sartzen denean indarra duten Nafarroako administrazio publikoen plan, arau, ordenantza eta bestelako xedapenak egokitu egin beharko dira foru lege honetan xedatutakora.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Araudi indarduna.

Foru lege honek indarra hartzen duenean indarrean dauden irisgarritasun-arauek bere indarra mantenduko dute foru lege honetan ezarritako arau-garapenek indarra hartzen ez duten bitartean.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hileko epean, legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren arauak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuak, gehienez ere foru lege honek indarra hartu eta hilabete epean, eta ukituriko alderdiekin adosturik, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseilua eratuko du.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartela eskuratzeko prozedura.

Erregelamendu bidez ezarriko da ezgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuak aparkatzeko txartela eskuratzeko prozedura.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indargabeturiko araudia.

Indarrik gabe geldituko dira foru lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Oztopo Fisikoak eta Zentzumenezkoak Kentzeari buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea eta aurreko

foru lege hori aldatzekoa den martxoaren 25eko 22/2003 Foru Legea.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Pirinioetarako garapen plan berri bat taxu dezan 2010-2012 urteetarako.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Pirinioetarako garapen plan berri bat taxu dezan 2010-2012 urteetarako".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Pirinioetarako garapen plan berri bat taxu dezan 2010-2012 urteetarako**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean presta dezan Nafarroako Pirinioetako Garapen Plana, 2010-2012 urteetarako.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat taxutu eta abian jar dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat taxutu eta abian jar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikus-entzunezkoen sektorearen dinamizazioari eta garapenari buruzko plan bat taxutu eta abian jar dezan**

1. Irrati-eskaintzaren areagotzea, eman gabe dauden lizentzien administrazio-emakidaren bitartez.

2. Irrati digitalaren garapenari buruzko azterlan bat egitea. Eta, epe ertainean, erregioiko irrati publiko bat abiarazteko aukera aztertzea, modalitate tekniko honetan.

3. Nafarroako telebista-emisoreekin lankidetzan aritzeko sistema-esparru bat, haien lehiakortasuna hobetzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak LTDaren sintonizazioari buruz 2008ko martxoaren 17an emandako Ebazpena, PSNk proposatu eta parlamentu-talde guztiek onetsia, garatzea, Nafarroan lurralde mugakideetako LTDko kate autonomikoak hartu ahal izateko lankidetzan autonomikorako hitzarmen egokiak eginez Aragoi, Euskadi eta Errioxarekin, eta baimenduz Nafarroako LTDko kateak autonomia mugakideetan emititzea. Hitzarmen horiek, betiere, alderdiak lotu behar dituzte Foru Komunitatearen errealitate sozial eta instituzionala errespetatzeko konpromisora. Industria Ministerioari

LTD kate anizkoitz bat eskatzea, aurrekoari euskarrria emanen diona.

5. Ikus-entzunezko cluster bat sortu eta abiaraztea.

6. Ikus-entzunezko Zientzia eta Arteen Goi mailako Institutu bat sortzearen bideragarritasunari buruzko azterlana. Institutu horrek balizko loturak izanik NUPekin bere garapen-planen barranean, eta, batez ere, enpresen sektorearekin, modua eman behar luke Nafarroa erreferente bihurtzeko, bai nazioan eta bai nazioartean.

7. Irrati-eskaintza gehitzea, Corporación RTVE-rekin hitzarmen bat sinatuz Nafarroan Radio 4 abiarazteko. Ezaugarriak: instituzionala eta zerbitzu publikoa.

---

## **Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Larrialdietarako Landa Zerbitzuko langileen eskabideak onar ditzan eta ezinbesteko dituzten tresnak eman diezazkien.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Larrialdietarako Landa Zerbitzuko langileen eskabideak onar ditzan eta ezinbesteko dituzten tresnak eman diezazkien."

Legebiltzarrak 2010eko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko martxoaren 5eko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda